

# ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko urtarrilaren 22a > Astelehena > III. urtea > 130. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Gurasoek aurrera egiten lagundu ziguten klandestinitate garaian"

**Lupe Ibarbia**  
Klandestinitatean andereño > 06



**G2a**

Kantuan irteteko tradizioa berreskuratu > 23

**AHOTSAK**

Ahotsak emakume plataforma Arrasaten izango da eguenean > 04

**SASKIBALOIA**

Euskadiko Txapelketa jokatu du Mugarri Alkesa taldeak > 20

**MUSIKA**

Ross 'the Boss' gitarra-jolearen taldeak joko du 3.60 aretoan > 26

**EGURALDIA** > FRONTE HOTZA


## Negu gorriko eguraldia egingo du Debagoienez aste osoan

**EURIA** Urtarrilaren 7az geroztiko lehen euria atzo, domeka, izan zen, baina gogorrago botako du gaur

**OSO TXARRA** Aste osoan, neguko giro oso txarra izango da, eta aste bukaeran bakarrik baretuko da zertxobait

**ELURRA** Gaur, astelehena, elur-kota 500-600 bat metrotan egongo da, eta etzi, eguaztena, 300era jaitsiko da > 04

Barruan, Elgetako futbol taldeko posterra



ARDOAREN ASTEBURUA Ezkerrean, Aramaioko Sagartzalien Elkarteko kide bat txotx egiten; eskuman, Egibaundi baserriko txakolina edaten Angiozarren.



JOSETXO ARANTZABAL

## Txakolin eta sagardo denboraldiak hasi dira gurean ere

EGUBAKOITZEAN, ARAMAIOKO SAGARDOTEGIAN TXOTX EGIN ZUTEN, ETA IBARREKO TXAKOLINGILEEK GERTU DUTE ARDOA; BATEK DOMEKAN AURKEZTU ZUEN > 05, 31

**AURKIBIDEA**

Debagoiena > 04-05

Elkarrizketa > 06

Bertatik bertara > 07

Iritzia > 08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-21

Kultura > 23-27

Sailkatuak > 28

Irrati-telebista > 29

Berri-zakua > 30-31

Azkena > 32

**ESKORIATZA** > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

## Nestor Aranak azalpenak emango ditu Batzar Nagusietan

Eskoriatzako Zarimutz auzoan egindako lan batzuk salatu eta Arana agertzea eskatu zuen Aralarrek

Bidegi enpresa publikoko zuzendariak, Nestor Aranak, Eskoriatzako egindako Eibar-Gasteiz autobideko lan batzuen gaineko azalpenak eman beharko ditu Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Erakunde horrek hala onartu zuen joan den astean, eta urta-

rrilaren 30erako finkatu du Arana agertzeko data.

Eskoriatzako Zarimutz auzoan egindako lan batzuen gaineko galderak erantzun ditu Aranak. Aralar alderdiak eskatu du agerraldia, lan horietan Bidegiren jokaera salatu eta gero. > 13

**POLITIKA** > JARRAI AUZIA

## Gazte asko, atxiloketen aurka

Gaur, astelehena, prentsaurrekoa egingo dute gaztetxean Arrasateko gazte batzuek, Jarrai-Haika-Segi aferan Auzitegi Gorenaren erabakia eta atxiloketak salatuko. Asteburuan mobilizazioak izan dira ibarrean. > 04



AIREAREN KUTSADURA &gt; DEBAGOIENEN AIREA, KUTSATUENEN ARTEAN

# EAEn baino hiru aldiz maizago dago airea kutsatuta ibarrean

**KALITATE TXARRA** EAEn, batez beste, urtean 5,36 egunean da txarra airearen kalitatea; Debagoienera ia hirukoiztu egin da kopurua

**OSASUNA** Atmosferaren kutsaturak izan dezake eraginik gizakion osasunean; batez ere, arnas aparatuan egin dezake kalte

**INDUSTRIA** Lantegietako aire emisioak arautzeko lege zorrotzak daude, eta asko kontrolatzen da kutsatzen duten ala ez

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE**  
Gizakiari ezinbestekoa zaio airea bizirik irauteko, eta arnasten dugun aireak kalitate onekoa izan behar du. Airean substantziaren bat ohi kanpoko kantitatean agertzea da kutsadura, baldin eta horrek ingurunearendako kaltegarri bihurtzen badu. Airearen kutsadura sortzen dute autoek, industriak... Ondorioz, gizakiaren osasuna kaltetzen da, baita ekosistema ere.

EAEn, atmosferaren kutsaduraren arazoak garrantzi handia izan du azken mendean barrena, industriaren kontzentrazioaren eta industrializazioaren ezaugarrien ondorioz. Bereziki, txikia den inguru batean, industria jardura kutsatzaile asko egon dira batera. Baina poluzio iturriak ez

dira industriara mugatu. Inguru batzuetako populazioaren kontzentrazio handien ondorioz, berogailuek edo motorekko ibilgailuen trafikoak eragindako igorpen garrantzitsuak daude.

Beste faktore bat da industria guneak hiriguneekin nahastuta hazi direla nahiko modu desordenatuan. Ez dira atmosferaren zenbait egoerak dituzten eraginak kontuan hartu, eta garrantzitsua da ingurumen faktore guztien arteko mendekotasunak eta harremanak ondo ulertzea.

**ARRASATE, KUTSATUENEN ARTEAN**  
Airearen kalitatea neurtzeko aparailuak ipini ditu Eusko Jaurlaritzak EAeko zenbait gunetan, eta horietako bat Arrasaten dago. Neurketen emaitzen arabera,

**"Autobus asko ia hutsik ikusten ditugu eta auto pila dabil errepidean"**

**"Eusko Jaurlaritzak esan du ekintza plana gertu dagoela, baina guk zirriborroa baino ez dugu jaso"**

Gipuzkoa da, airearen kalitateari dagokionez, maila baxuena ematen duen lurraldea. Airearen kalitate txarra, oso txarra edo arriskutsua neurtu dute hamar egun baino gehiagotan EAeko hainbat gunetan, eta horietako bat da, hain zuzen ere, Debagoiena. EAEn, batez beste, 5,36 egun dira airearen kalitatea txarra dena; gurean, ordea, ia hirukoiztu egin da kopurua.

Arrasateko Agenda 21eko teknikari Nerea Lazpiurrek esan digu: "Onartutako kutsadura maila gaintzen da hainbat egunetan, eta arduratzeko modukoa da. Gurean, kutsadura garraioak sortzen du, batez ere; baita mugikortasunerako moduak ere. Apenas erabiltzen dugu garraio publikoa, autoan bakarrik joaten

gara, eta kamioi asko dabil. Kamioiena saihestezina da. Fabriketatik produktuak ezin dira itsasontziz edo trenaz kanpora bidali guretik, beraz, kamioiak erabili behar dira nahitaez. Baina norbanakoen autoen erabilera gure ardurapean dago, ez administrazioarenean bakarrik, herritarronean baizik". Horren hariram mugikortasun astea bezalakoak aprobetxatzen dituzte kanpainak egiteko, "baina ez da nahikoa", Nerea Lazpiurren esanetan. "Egoera kezagarria da, autobus asko ia hutsik ikusten ditugu eta autoak barra-barra dabilta bidean".

Airearen kutsadura arautzen duen legeak muga batzuk jarzen ditu kutsadura neurtzeko, eta, horiek gaintuz gero, diagnostia egin behar da eta, ondoren, kutsaduraren jatorria ekiditeko ekintza planak garatu.

Arrasateko Udaleko Ingurumen teknikari Rafa Ugartek esan digunez, "Arrasaten PM<sub>10</sub> parametroak legezko muga gaintzen duenez, ekintza plana egin beharra dago". 2005ean hasi eta 2006rako diagnostiko bat egin zen Arrasaten eta, jakinda zein izan zitekeen kutsaduraren jatorria, horri aurrea hartzeko plana egin beharra ikusi zen. "Eusko Jaurlaritzak esan duen arren ekintza plana gertu dagoela, guk zirriborro bat baino ez dugu jaso. Arrasaten herri erdian obra asko egin direnez, hauts asko harrotu da, beraz, irtenbidea litzateke bideak ureztatzea. Garraio pribatua ahal den neurrian ekiditea da har daitekeen beste neurri bat. Izan ere, kutsaduraren %40-50 autoetatik dator. Horretarako, garraio publikoa erabiltzea edo autoa partekatzea gomendatzen dugu, eta beste neurri bat izan daiteke pertsona bat bakarrik autoan joanez gero zigorrak jar-



## ESKERRIK ASKO!

**Danbaka Debagoieneko II. Musika Lehiaketaren antolatzaile Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Espaloia kafe antzokiak eskerrak eman nahi dizkie:**

- Lehiaketan parte hartu duten talde guztiei eta baita izena eman arren parte hartzeko aukerarik izan ez dutenei ere.
- Lehiaketa aurrera ateratzeko babesa eman duten erakunde eta etxe guztiei.
- Lehiaketako kontzertuak ikustera joandakoei.
- Goienako hedabideetan (Goiena Telebista, GOIENKARIA, Goiena.net, Danbaka.com eta Arrasate Irratia) lehiaketa jarraitu dutenei.
- Publikoaren saria aukeratzeko parte hartu dutenei.
- Lehiaketari jarraipena eman dioten hedabideei.
- Lehiaketan, modu baten edo bestean, lanean jardun duten Espaloia kafe antzokiko eta Goienako langileei.
- Danbaka.com-en parte hartu dutenei eta Danbaka.com-en bloga sortu duten talde guztiei.

Zuon guztion laguntzari esker izan da hain arrakastatsua Danbaka, Debagoieneko II. Musika Lehiaketa. Eskerrik asko!

**Hurrengoan, gehiago eta hobeto!**




**INFORMAZIO + [www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)**

























**KAMISETAK SALGAI!**



tzea... Baina airearen kutsadura-  
ren arazoa ez da erraz konpon dai-  
tekeen kontua. Gainera, oraindik  
ez dugu ekintza plana esku arte-  
an, eta daukagunean ekingo dio-  
gu lanari", esan digu Ugartek.

#### INDUSTRIAREN ERAGINA

Lantegiendako ere, aire emisio-  
ak arautzeko lege zorrotzak dau-  
de, eta asko kontrolatzen da.  
"Garai batean, egon zen enpresa-  
ren bateko aire emisioengatik  
kexarik Arrasaten, baina kontro-  
la egin zen eta neurriak betetzen  
zituena. Herriko beste gune  
batzuetan, bestelako neurketak  
ere egin dira. Kalean, aparailu  
batekin airea xurgatu eta neurt-  
zen du kutsadura zenbatekoa  
den. Kasu horretan ere, muga ez  
zen gainditu. Hala ere, kontuan  
hartu behar da makina horrek  
neurtzen duela une eta leku  
horretan zenbat hauts dagoen,  
baina ezin da zehaztu nongoa  
den, horretarako azterketa sako-  
nagoa behar da", dio Ugartek.

#### OSASUNAREN KALTERAKO

Airearen kutsadurak izan deza-  
ke eraginik osasunean, batez ere  
arnas aparatuan. Arrasateko Iña-  
ki Agiriano sendagileak esan  
digunez, "datu zehatzik ez dau-  
kagu eta zaila da esatea gaixota-  
sunak airearen kutsadurak era-  
gindakoak direla. Pertsonalki,  
esango nuke baduela zerikusirik  
airea kutsatuta egoteak arnas  
aparatua gaitzetan, baina guk  
ezin dugu neurtu. Airearen kutsa-  
durak ez ezik, bestelako kutsadu-  
rek ere sortzen dituzte gaitzak:  
estresa, antsietatea...".

#### ONDORIOAK

Egin diren azterketek erakutsi  
dute industriako isurketak jaitxi  
egin direla, lantegi batzuk itxi  
direlako eta beste batzuek neu-  
rriak hartu dituztelako. Arrasa-  
teko harrobiek ere badute eragi-  
nik atmosferaren kutsaduran.  
Baina, dudarik gabe, zirkulazioa  
da eragile nagusia. Herriko ibil-  
gailu mugimenduaz gain, ezin  
dira ahaztu ibarreko errepideetan  
ibiltzen diren ibilgailu astunak.

Airea kutsatuta eta haizea  
geldi, bata bestearen ondorio.  
Izan ere, kutsadura haizearen  
norabideak eta orografiak ere  
baldintzatzen dute.

Kea nonahi, eta ibilgailuak  
zein fabrikak ere bai. Azken bate-  
an, denok hartu behar diogu  
kutsadurari neurria, berak guri  
aurea har diezagun nahi ez badu-  
gu, behintzat.



AUTOAK Ibilgailuek isurtzen duten kearen PM<sub>10</sub> partikulek eragiten dute, batik bat, airearen kalitatea txartzea.

GOIENKARIA

## Airearen kalitatearen berri Arrasateko Laubide plazako neurgailutik

Arrasateko Laubide plazan dago ipinita airearen kalitatea neurtzen duen  
aparailua. Bertan jasotako datuen arabera, 2003an, 41 egunetan gainditu  
zen legeak ezarritako maila; 2004an, 44 egunetan; eta 2005ean, 77  
egunetan; eta gehieneko muga 35 eguneko da. Airearen kutsadura  
neurtzeko orduan, hainbat gai hartzen dira kontuan: sufre eta nitrogeno  
dioxidoak, karbono monoxidoa, ozono troposferikoa eta PM<sub>10</sub> partikulak.  
Azken hauek eragiten dute, hain zuzen ere, kutsadura; hau da, soilik  
material partikulatuak (PM<sub>10</sub>) ez du betetzen legeak ezarritako muga. PM<sub>10</sub>  
partikulak ketik, lurretik, fabriketako hauts toxikoetatik eta errepideetatik  
eratorritakoak dira, besteak beste.

Joan den asteo airearen kalitatearen indizeei erreparatuta, aste  
hasieran kalitatea txarra bazen ere, aste amaieran onartzeko modukoa  
izatera pasa da eta, tartean, egon dira moderatu mailara baino iritsi ez  
diren egunak ere. Datuok egunero kaleratzen dira Eusko Jaurlaritzako  
webguneko Ingurumen Sailaren atalean (<http://tinyurl.com/3b5wzb>).  
Gainera, hurrengo egunetarako aurreikuspenak ere egiten dituzte eta,  
horien arabera, datozen egunetan airearen kalitatea onargarria izango da.



Arrasateko neurgailua.

GOIENKARIA



### 0-6 URTE

## haur hezkuntza

SAIO INFORMATIBOAK:

**UMEZAINZA** urtarrilak 22 18:00-19:15 Arrasate

**BASABEAZPI** urtarrilak 23 18:00-19:15 Aretxabaleta

**SANTA TERESA** urtarrilak 24 18:00-19:15 Arrasate

**OLARTE** urtarrilak 25 18:00-19:15 Arrasate

**SAN VIATOR TXIKI** urtarrilak 29 18:00-19:15 Arrasate

ATE IREKIAK FESTA:

**JOSE ARANA** otsailak 4 11:00-13:00 Eskoriatza



### 6-12 URTE

## lehen hezkuntza


ATE IREKIAK:

**GAZTELUONDO** urtarrilak 23 08:30-19:00 Arrasate

**SANTA TERESA** urtarrilak 31 17:00-19:00 Arrasate

**SAN VIATOR TXIKI** urtarrilak 31 09:00-19:00 Arrasate

otsailak 1



**902 11 20 25**

**informa zaitez**

[www.arizmendi.ikastola.net](http://www.arizmendi.ikastola.net)

**Arizmendi**  
ikastola





EURIA Urtarrilaren 7az geroztikako lehen euria bota zuen atzo, domeka.

JOSETXO ARANTZABAL

Atzo, domeka, esan genion agur aurtengo negu epel eta lehorrari, fronte hotza iritsi zelako, baina gaur hasiko gara haren aurpegi latzena ikusten

EGURALDIA &gt; FRONTE HOTZA

## Hotza, zaparradak eta, etzi, 300 metrotara elurra izango ditugu

LEIRE KORTABARRIA &gt; BERGARA

Kostata, baina sartu da negua Debagoienara. Iragarri bezala, atzo, domeka, bota zuen lehenengo euria 14 egunean, eta fronteak aste oso honetan erakutsiko du alderik gogorrena. Hala, neguko hotza, trumoaia, txingorra eta elurra izango ditugu datozen egunotan, gutxienez asteburura arte.

Hala iragarri digu Joxe Landa meteorologian adituak. Bere

esanetan, gaur, astelehena, hasiko dira zaparradak eta hotza: "Euria etengabe egingo du egun osoan, eta arratsaldean, zaparrada potoloak izango dira. Trumoaia eta txingorra izango ditugu, tarteke, barealditxoren batekin".

Etzi, eguaztena, hotza areagotu egingo da, Landaren esanetan, eta elurra 300 metro ingurura jaitziko da. Aste bukaeran, berriz, ateriago izango da.

1989, URTE SIKUENA

Luis Mari Agirre bergararrak euri neurketak egiten ditu azken 24 urteotan, eta, bere datuen arabera, joan den urtean 1.197 l/m<sup>3</sup> euri izan genuen, urteko batez bestekoa (1.452) baino 255 litro gutxiago. Urruti dago 1989. urtearen markatik, ordea: urte hartan, 24 urteotako lehorrrena, 997 l/m<sup>3</sup> bakarrak egin zuen. Aurten, hilairen 7an egin zuen azken euria.

EPAIA &gt; JARRAI-HAIKA-SEGI AUZIA

## Auzitegi Gorenaren erabakia salatzekeo agerraldia dago gaur

Aste bukaeran mobilizazioak izan dira ibarrean auzipetuen alde

Amaia Arrieta arrasatearra atxilotu zuten joan den egubakoitzean

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ARRASATE

Auzitegi Gorenak Jarrai, Haika eta Segi erakunde terrorista" direla erabaki ostean, kasu horretan auzipetutako 23 lagun atxilotzeko agindua eman zuen Auzitegi Nazionalak; tartean Amaia Arrieta arrasatearra eta Garazi Biteri Bergaran bizi den eibartarra.

Erredakzioa ixteko uanean lau atxilotuta zeuden jadanik. Iker Frade ostegunetik dago atxilotuta Bilbon Iñaki de Juanaren aldeko mobilizazio batean parte hartzeagatik. Donostian atxilotu zituzten Amaia Arrieta eta Igor Ortega egubakoitzean eta zapatuan Murgian, Araban, Olatz Carro.

MOBILIZAZIOAK

Asteburuan hainbat mobilizazio izan dira Jarrai, Haika, Segi kasuko auzipetuen alde, eta gurean ere izan dira manifestazioak Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan besteak beste. Arrasaten herriko plazan egin zuten agerraldia eta ertzainek bilkura desegin zuten. Hala ere, berriz elkartu eta ekitaldia amaitu zuten.

Bestalde, gaur, astelehena agerraldia egingo duela iragarri dute Arrasateko gazte batzuek. Salatuko dituzte Auzitegi Gorenaren erabakia eta egin diren azken atxilotetak. Hitzordua 18:30ean izango da Arrasateko gaztetxean.



BABESA Donostian aurkeztu zen Ahotsak, babes handiarekin.

GOIENKARIA

GIZARTEA &gt; AHOTSAK EMAKUME PLATAFORMA

## Ahotsak taldea Arrasaten izango da egunean

Bakearen alde lan egiten jarraituko dute denetarikoa ideologietako emakumeek batera

L.K. &gt; ARRASATE

Ahotsak plataforma Debagoienara etorriko da lehenengo aldiz. Arrasaten izango dira Jone Goirizelaia, Josune Arizondo, Ainhoa Aznarez, Gema Zabaleta, Onintza Lasa eta Aralarko ordezkari bat egunean, hilak 25, udaltxean, 18:30ean.

Hego eta Ipar Euskal Herriko alderdi politiko eta sindikatu guztietako -PP eta UPN izan

ezik- emakumeak joan den apirilean batu ziren Ahotsak sortzeko, bakearen alde lan egiteko helburuarekin. Besteak beste, euren proiektuaren aldeko 5.000 sinadura batu dituzte.

Barajasko atentatuaren ostean, gogoeta egin du plataformak, eta "atentatuaren garrantzia jakinda ere, lanean jarraitzea" erabaki dute. Horren guztia berri emango dute Arrasaten.

HEZKUNTZA

## Antzerkia, indarkeria prebenitu ahal izateko

Baketik zentroak Antzerkiforum proiektu pilotua antolatu du

L.K. &gt; OÑATI

Eskolan indarkeria eta jarra arrazistak prebenitzeko Antzerkiforum metodoa erabiltzen duen programa pilotua antolatu du Arantzazuko Baketik zentroak. Metodo hori Augusto Boal brasildarrak sortu zuen 70eko hamarkadan. Horren bidez, aktoreek gaizki amaitzen den lan bat antzetzten dute, arazo baten inguruko, eta ikasleek antzetzlana berriz diseinatu behar dute.

EAE-KO IKASTETXEETAN

Proiektua Eusko Jaurlaritzak babesten du, eta euskal hezkuntza sare osoko ikastetxeek egingo dute gaur, astelehena, hasi eta martxoaren 9ra arteko epean. 8 eta 12 urte bitarteko ikasleek egingo dute, egun bakoitzean ikastetxe bereko 30-50 lagun taldean.





TXAKOLINGILEAK Mahatsa biltzen Upainguan; botilaratutako Artazubiagako Otxia txakolina; eta Egihandiko txakolin-dastatzea, atzo, domeka.

ARGAZIAK: ARTXIBOA / JOSETXO ARANTZABAL

TXAKOLINA > IBARREKO EKOIZLEAK

# Txakolin ekoizleek lehenbailehen jaso nahi dute izendapena, Getariakoa bada ere

Getariako izendapenik ez duten txakolingileak Gipuzkoako txakolina izena nahi dute

Ibarreko hiru txakolingile nagusiek aurten 40.000 botila ekoiztu dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Eguaztenean, San Anton egunez, aurkeztu zuten Getarian txakolinaren uzta berria.

Getariara joan gabe, ordea, gurean ere badira txakolin ekoizleak, eta txakolinaren izendapen ofiziala lortzeko ahaleginetan ari direnak, gainera. Getariako jato-

rrizko izendapenetik kanpo dauden txakolin ekoizleak eta txakolina ekoizteko bidean diharduten beste hainbat lagunek elkarte bat sortu zuten, Atxagi. Elkarteko kideek batzarra egin zuten zapatuan Oñatin. Gipuzkoako hainbat txakotatik etorritako 20 lagun elkartu ziren txakolinaren izendapenaren auziaz berba egiteko.

Hiru dira ibarreko txakolin ekoizle nagusiak: Arrasateko Egihandi baserriko Jabier Arregi, Artazubiaga baserriko Felix Etxagibel eta Oñatiko Upaingua baserriko Juan Zelaia. Horietaz gain, ibarrean badira ekoizpen txikiagoak egiten dituen txakolingileak ere.

Felix Etxagibelek esan digu datorren astean jakinaraziko dutela batzarrean adostutakoa, baina zera aurreratu digu: "Foru Aldundiak eskaini digu orain

arte Getaria, Zarautz eta Aiarendako bakarrik zen Getariako jatorrizko izendapena Gipuzkoa gutzira zabaltzea. Gure hasierako asmoa zen Gipuzkoa izendapenaren baitan jasotzea txakolin guztiak; baina, besterik ezean, Getaria

riakoa eman behar badigute, eman diezagutela lehenbailehen. Izendapen hori aldi baterako ematea edo, besterik eman artean, gure txakolina ere Getariako izendapenaren baitan sartzea ondo dago, azken finean ofizial-

tasuna ematen digulako. Izan ere, arazoa da kontua aurrera doala eta mahastiak zahartuz doazela, eta ez dutela eperik zehazten. Gauza asko agindu dizkigute, baina guk data zehatza nahi dugu".

Atxagikoen asmoa, Gipuzkoako txakolina izendapena ez ezik, Euskadiko txakolina izendapena lortzea da. "Hori aurrerako utzi beharko dugu, eta ea Araba eta Bizkaikoekin batera izen bakarra lortzen dugun".

AURTENGO TXAKOLINA

## Kalitatezkoa, frutatsua eta freskoa

Ibarreko hiru ekoizle nagusien artean, aurten 40.000 txakolin botila inguru ekoiztu dituzte.

Botila horiek guztiak merkaturatzeak badu lana. Izan ere, egoera alegalean egonik, ez daukate izendapenik, eta inguruan saltzera derrigortuta daude. Felix Etxagibelen esanetan, "gure ibarrean, batik bat, Getariako txakolina kontsumitzen da. Legea euren alde izanik, saltzeko ez dute oztoporik. Hala ere, gurea kontsumitzen dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu, eta jendeari jakinarazi nahi diogu txakolina ez dela Getariakoa bakarrik".

Aurtengo txakolina "inoizko onenetarikoa" dela esatera ausartu da Etxagibel. "Kalitate handikoa da; frutatsua eta, alkohol gehiago duenez, gorputz gehiago hartu du txakolinak; era berean, freskoa ere bada".

**TXAKOLIN-DASTATZEA**  
Bergarako Angiozar auzoan, Par-teittin, jaiak izan dira asteburuan, eta jaien aitzakian, auzotarrek eta hara joan direnek Kataide txakolina dastatzeko aukera izan dute. Gainontzekoek ibarreko txakolina probatzeko badute aukera zenbait tabernatan edo dendatan.

# Aretz

Plater konbinatuak • Ogitaratekoak • Hanburgesak

Pizzak • Paellak eramateko

Zeliakoentzako ogitaratekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA





"Klandestinitate eta jazarpe-  
neko erregimen batean gure kul-  
tur nortasuna eta gure hizkun-  
tza, euskara, berreskuratzea"  
dira Sabino Arana fundazioak  
bere 2006ko saria klandestini-  
tateko andereñoi emateko  
arrazoietako bat. 200 bat ema-  
kume talde horren barruan  
Debagoieneko 12 daude, eta  
horietako batekin, Lupe Ibarbia-  
rekin, hitz egin dugu.

Lupe Ibarbia > Klandestinitatean andereño izan zen

# "Gurasoen konfiantzak aurrera egiten lagundu zigun klandestinitate garaian"

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Beste berrehun inguru emakume-  
rekin batera, 2006 Sabino Arana sari-  
dunetako bat da Lupe Ibarbia 1965az  
geroztik Elgetan bizi den abaltziz-  
ketarra, klandestinitate garaiko  
andereño izateagatik. Frankismoa-  
ren ondoren andereño izaten jarrai-  
tu zuen Ibarbiak 2003ra arte.

**Sabino Arana saria andereño-  
oi ematea zer iruditzen zaizu?**

Ondo dago; izan ere, gaur egun-  
goaren oinarriak orduko andere-  
ñoek ipini genituen, eta ikastolen  
alde lan handia egin genuen.

**Zelan etorri zinen Elgetara?**

Hemen, moja batzuk zeuden  
lehendik, parrokian eta lan egi-  
ten zutenak, eta haiek eskolak  
emateari utzi zietenean, andere-  
ño batzuek deitu gintuzten. Hiru  
etorri ginen eta, ahal zen moduan,  
eskolak euskaraz ematen hasi  
ginen. Ikasle dezente nituen,  
50etik gora, adin guztietakoak.

**Ze material zenuten?**

Ez genuen liburu euskaldunik;  
dena fitxa bidez ematen genuen,  
edo guk prestatuta. Ez geneukan  
ezer, hori zen txarrena. Gero,  
orduko andereñoek elkarte sortu  
genuen, eta liburuak lortzeko  
laguntza zen hori. Ez genuen ara-  
zorik izan umeen nota-kartilak  
lortzeko, baina haiek egunera-  
tzea arazo handia izan zen. Ordu  
piloa egin behar izaten genuen lan,  
baina gustura.

**Beste ikastola batzuekin harre-  
manik bazenuten?**

Bada, udan, gu geu prestatze-  
ko ikastaroak egiten genituen, eta  
horrela, Elgoibarko andereño-  
ekin harreman handia sortu  
genuen, eta gerora, Bergarakoe-  
kin ere. Baina, hasieran, zaila zen  
beste batzuekin harremana, lehe-  
nengoetarikoak izan ginen eta.  
Donostiakoekin oso harreman  
txikia geneukan; bakarrik ikas-  
taroetan egoten ginen.

**Zelan antolatzen zinen, bada,  
eskolak eman eta zu zeu ikas-  
taroetara joateko?**

Eskolak goizez eta arratsalde-  
z izaten ziren, eta bukatutakoan iz-  
aten ziren ikastaroak, bi, hiru edo  
lau ordukoak. Abuztua zen gure  
opor hilabete bakarra, eta orduan  
ere egoten ziren ikastaroak.

**Non ematen zenituen eskolak?**

Lehenengo, orain Elgetako  
eskola dagoen lekuan; gero, fron-  
toi zaharra deitzen dioten lekuan.



Lupe Ibarbia Elgetako eskola zaharraren aurrean.

JOSETXO ARANTZABAL

## MATERIALA

**"Ez geneukan ezer, eta  
hori zen txarrena: liburu  
euskaldunik ez zegoen,  
eta dena fitxa bidez  
ematen genuen"**

Pentsa zelakoa zen leku hura, ona  
ez, baina gazteak ginen eta ilu-  
sio handia genuen.

**Zenbat kobratzen zenuten?**

Nire hasierako soldata 5.520  
pezeta zen, eta urte askoan ber-  
din egon ginen, oso gutxi kobrat-  
zen. Gurasoek lan handia egin  
zuten, dirua zozketen bidez ater-  
ratzen zuten, eta taberna bat  
ere sortu zuten; euren poltsiko-  
tik ere jartzen zuten... Euren  
esker ona eta laguntza beti izan  
ditugu, eta umeak ere oso gus-  
tura egoten ziren gurekin. Gura-  
soek konfiantza handia zuten  
guregan, eta horrek aurrera  
jarraitzeko indarra ematen  
zigun. Orain, alde handia dago:  
nire ustez, gaur egun, gurasoek  
ez dute irakasleengan horren-  
besteko fedea.

## SOLDATA

**"Gutxi kobratzen genuen,  
baina ikasleen gurasoek  
zozketen bidez eta  
ateratzen zuten dirua  
9.000 bat euro"**

Soldatari dagokionez, gero-  
ra Eusko Jaurlaritzak eman  
zigun, ordukoarengatik konpen-  
tsatzeko.

**Hezkuntzan, gauzak aldatze-  
ko aukerarik izan zenuten?**

Garai hartan, oso errotuta  
zegoen abadea eskolara joatea,  
eta Elgetako kasuan, mojekin-  
eta, horretara ohituta zeuden,  
eta goizetan mezetara joatera  
ere. Hori guztia kentzen joan  
ginen pixkana-pixkana.

**Arazo handiak izan zenituen,  
ikastola klandestino zela-  
ko?**

Inspektoreak askotan etor-  
tzen ziren, abisatu gabe, gelak  
begiratzera; Guardia Zibilak ere  
bai. Horrez gain, orduan esko-  
la nazionalak zeuden, eta han-

## BELDURRA

**"Ez nuen beldurrik  
izaten. Inspektoreak  
askotan etortzen ziren,  
baina inoiz ez genuen  
arazo handirik izan"**

go maisuekin eztabaidak izan  
genituen, ikasle asko guregan  
etorri zirelako eta... Baina nahi-  
ko ondo moldatu ginen, eta ez  
genuen inoiz arazo handirik  
izan. Nahiko inspektore onak  
tokatu zitzaizkigun. Horrez gain,  
lege aldetik, umeen nota-karti-  
lak bageneuzkan, eta hori ere  
abantaila izan zen.

**Inoiz beldurrik izan zenuten?**

Ez. Ez genuen horretan pen-  
tsatzen; ohitu egin ginen, edo...  
Gurasoen laguntza edukitzea  
ere oso garrantzitsua izan zen.

**Frankismoaren ondoren,  
zelan izan zen zuretako ira-  
kaskuntza arautura pasatzea?**

Nire ametsa, umetatik, ira-  
kasle izatea zen; orduan, titulua  
atera nuen, eta garai hartan

dagoeneko banintzen irakasle.  
Gerora, oposizioak egin eta  
lekua lortu nuen. Franco hil  
zenez, zuzenean onartu gin-  
tuzten hezkuntza sarean; gero-  
ra, Jaurlaritzak lagundu egin  
zigun, gure irabaziak altxatu  
egin ziren...

**Zein da garai hartako zure  
oroitzapen onena? Eta txar-  
rena?**

Oso oroitzapen onak ditut,  
orokorrean. Umeekin oso gus-  
tura egoten nintzen. Gogoan dut  
ere urtero Gabon jaialdia pres-  
tatzen genuela, ume guztiek par-  
te hartuta, eta frontoi zaharra  
gainezka egoten zen haiek ikus-  
teko.

Txarrena... tira, batzuek ez  
gintuzten onartzen, eta orduko  
Udala ere ez zen oraingoak beza-  
lakoa, euskararen aurka zeu-  
den udal asko, eta guk erantzun  
txarrak eta laguntza falta ere  
izan genituen.

**Ikasleak ere gogoan dituzu?**

Bai, eta badut eurekin harre-  
mana. Azken urteotan, hasiera-  
ko ikasleen umeak ere izan ditut  
ikasle.



## oharrak eta deialdiak

OÑATI

### > Ehiza txapelketarako izenemate epea zabalik

Arantzazu eta Aratz bitarteko zelaian ehi-za txapelketa egingo dute hilaren 28an. Par-tehartzeko interesa dutenek hilaren 26a baino lehen eman beharko dute izena Pago Uso elkartearen. Informazio gehiago Pago Uso elkar-tean eta Aizu dendan.

ANTZUOLA

### > Erretiratuen elkarteak bazkide bila dabil

Antzuolako Erreti-ratuen Elkarteak bazkideak lortzeko kanpaina abia-razi du. Hainbat gutun banatu ditu egunotan, elkartean bazkide ez diren erretiratuen artean. Interesa dutenek elkarteak bazkideko kideengana jo behar dute. Andoni Azkarate da presidentea gaur egun.

BERGARA

### > Bedelkarreko Gabonetako zozketa

Dendarien elkarte-ak Gabonetan egindako zozketan saritutako zen-bakiak dira: 08.373, 09.183, 14.227, 31.137, 48.030, 52.358, 60.201, 61.008, 50.938, 62.383, 70.318, 71.376, 79.715, 80.969, 85.101.

OÑATI

### > Yoga eskoletan izena emateko epea zabalik

Hilaren 23ra arte dago zabalik izena ema-teko epea. Eskolak hila-

ren 19an hasiko dira eta maiatzaren 28an buka-tuko dira. Astelehen eta eguaztenetan izango dira 17:00etatik 18:30era. Aulas Kutxak subentzio-natutako ikastaroa da. Izena emateko jo: [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net) helbidera edo deitu: 902 54 00 40 zenbakira.

BERGARA

### > Lan istripuak salatze-ko elkarretaratzea

LAB sindikatuak deitu du. Hilaren 24an, eguaztena, izango da, 19:30ean, San Martin plazan.

BERGARA

### > Jardunek begirale lan poltsa osatu nahi du

Baldintzak dira eus-karaz ondo jakitea eta begirale titulua izatea. Ikasketak eta esperien-zia ere baloratuko dira. Interesatuok bidali curriculum: Bergara-ko Jardun elkarte, Errotalde jauregia z/g, 20570. Edo [gaztejar-](mailto:gaztejar-)

[dun@topagunea.com](mailto:dun@topagunea.com) helbidera.

ARETXABALETA

### > Flamenko eta eta kaxoi jotze ikastaroa

Otsailaren 7an hasi eta eguazteneko izango dira eskolak, Kurtzeba-rrri eskolan, martxo bukaerara arte. Hasta-pen taldea -18:30etik 19:30era- eta aurrera-tua -19:30etik 20:30era- egongo dira. Izenemate epea zabalik dago. Horretarako jo Aretxa-baletako Azkena tabe-rnara edo Arrasateko Aker Tatoo dendara. Plaza mugatuak dira.

DEBAGOIENA

### > Presoen senideei lagun-tzeko errifak

Bergara, Antzuola eta Elgetako presoak bisitatzeko senideek egin behar dituzten bidaietan laguntzeko errifa martxan da. Herriotako hainbat tabernetan eskura dai-tezke, 3 euroren truke.

Txartel bakar horrekin hileroko hainbat sari esku-ratzeko aukera dago: astelehenetik eguenera 30 euro eta barikuetan, 60 euro, ONCEko azke-neko hiru zenbakiekin bat eginez gero. Gaine-ra, otsailaren 23an 300 euroko sari berezia egongo da.

DEBAGOIENA

### > Baserriko plastikoa hildaren 23an batuko dute

Hilaren 23an batu-ko dute baserri inguru-nean sortutako plasti-koa. Bilketa puntuak ohikoak izango dira.

ARRASATE

### > Bide-hezkuntzaren gain-eko ikastaroa Abaroan

Eguaztenez egingo dute, 18:00etan. Kontrol-pean gidatu da ikastaro-aren gaia. Bestalde, Abaroan egindako gaboneta-ko otarraren zozketaren zenbaki irabazlea 297 dela gogorarazi du elkar-teak. Gainera, otarra jasotzeko azken eguna gaur, astelehena dela azpimarratu dute.

BERGARA

### > Etxebizitza egiteko lokalen zozketa

Etxebizitza egiteko hainbat lokal zozkatuko ditu Udalak. Zozketan parte hartzeko interesa dutenek bulego tekni-koan eman behar dute izena. Horretarako Ber-garan erroldatuta egon behar da -gutxienez urtebetez- eta ezin da beste etxebizitzarik izan.

## etxeko leihotik



Usoa Agirre > Goienako telematika arduraduna

## Herritarron neurriko ekipamenduen beharra

Txistu kontzertua egin genuen atzo. Badira urte batzuk udaletxeko osoko bilkuren aretoan egiten duguna. Ez da lekurik aproposena, baina Antzuolan dauden beste aukerak ikusita, txarrena ere ez. Leku txikia da, baina soinuari dagokionez herrian orain dugun onena.

Aurten ere bete egin da aretoa. Esango nuke jarrita bai-no jende gehiago zegoela zutik. Horrelako kontzertu batera-ko txiki gelditzen da udaletxea eta herriko jende asko dese-atzen egongo da kultur jardueretarako areto moderno eta erabilera anitzekoa edukitzeko.

Ai... inbidiaz begiratzen diot Elgetako Espaloia Kafe Antzo-kiari. Herri txiki batendako irtenbide bikaina iruditzen zait. Kultur ekintzak eskaintzeaz gain, herritarren topagune ere bada, eta herrian kultura bultza-tzeko elkarteko guneak egotea da onena. Baina, Antzuolan, iru-dipena daukat, askotan uste dugula hiri handi batean bizi garela. Eraikin handi bat egin-go dugu gauza pila batekin, benetan herritarrek zer nahi duten aztertu barik. Seguru ekipamendu horietako asko behar dire-la, baina hobe izaten da batzuetan handikerietan ibili beha-rrean umiltasun pixka batekin jokatu eta herriari entzutea.

**"Herriko jende asko deseatzten egongo da areto modernoa edukitzeko"**

> **Jendez lepo bete zen udaletxeko aretoa txistu kontzertua ikusi eta entzuteko. Urte guztiko lanaren ondoren indar-tu egiten da taldea txalo zaparrada horiek entzunda. Eskerrik asko denoi!**

> **Negua badatorrela eta badatorrela. Euri pixka bat egin du, baina Urkuluko urtegiak ez zuen gora asko egingo oraindik. Ea bada, behingoz, aurten neguan neguko egural-dia izaten dugun.**

## debagoiendarrak kanpoan

Manex Agirre > Aramaio

## "Debagoiena Gasteizetik hurbil ikusten da; batez ere Arrasate da ezaguna"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

Manex Agirre Gasteizen bizi da irai-laz geroztik. Orain sei urte ikaste-ra joan zen Arabako hiriburura; lau urte eman zituen han. Gero, ikas-ketekin jarraitzeko asmoz, Grana-dan bizi izan zen beste bi urtez. Orain Gasteizera itzuli da.

**Noiz joan zinen Gasteizera eta zergatik erabaki zenuen Gasteizen bizi izatea?**

Irailen etorri nintzen Gastei-zera. Hala ere, aurretik egon nin-zen Gasteizen bizi izaten, lau urtez, ikasten ari nintzen bitar-tean. Orain, baina, ikasketak amaitu ditut eta lanean ari naiz AEK euskaltegian.

**Badakigu azken bi urteak Granada eman dituzula. Nolatan joan zinen Granada?**

Granadara ikasketa kontuen-gatik joan nintzen. Literatura ikasketak egin gura nituen eta, horiek Granadan egin behar zire-nez, hara joatea erabaki nuen. Bi urte eman nituen Granadan.

**Alde handia nabaritu duzu Gasteiz eta Granada artean?**

Bai, aldaketa badago. Gasteiz oso ondo ezagutzen dudana hiri da, eta ez dut arazorik izan hona etortzeko. Gainera, Debagoiene-tik oso gertu geratzen da Gasteiz. Granada, berriz, leku berria zen niretako; alde handiena hori izan da. Hala ere, esan beharra dau-kat aipatutako bi hirietan oso gustura egon naizela.

**Hain gertu izanda, Aramaioa etortzeko ohiturarik izango duzu.**



GOIENKARIA

**Gasteizen lanean**

Ikasketak bukatu berri, Gasteizen aurkitu du lana. Bertsotan ere, hango lagunekin aritzen da Agirre.

Ez pentsa, gero eta gutxiago joaten naiz Aramaioa. Baina bai, aste bukaeretan, normalean, etxera joaten naiz; beti ez joan arren, bi astean behin, bai.

**Etxeko zer igartzen duzu fal-tan Gasteizen?**

Ni baserrian bizi naizenez, beharbada lasaitasun hori da Gas-teiz bezalako hiriburu batean fal-tan igartzen dudana. Aramaio-ko soro artean ez da zarata handi-rik izaten.

**Eta zer ekarriko zenuke Ara-maioa Gasteiztik?**

Kale giro apur bat eramango nuke Aramaioa. Ez asko, Ara-maio ere ez delako handia, baina bizitasun apur bat eramango nuke. Hori ere komenigarria iza-ten da.

**Bertsotan aritzeko lagunak aurkitu dituzu Gasteizen?**

Bai, aspalditik ditut bertso lagunak Gasteizen. Hasi, Ara-maion hasi nintzen bertsotan, baina gero Gasteizen jarraitu dut bertsolaritzarekin. Gainera, nire betiko lagunak hemen daudenez, bertso eskolan batzen gara; afal-du eta bertsotan aritzen gara. Giro polita daukagu bertso esko-lako lagunok.

**Eta nola ikusten da Debagoie-na Gasteiztik?**

Egia esan, hemendik oso hur-bil ikusten da; gainera, orain, autobidea dela-eta, oraindik eta hurbilago ikusten da. Gasteizko jendeak badu gure ibarraren berri. Batez ere, Arrasate da eza-guna Gasteizen; Maritxu Kajoi jai-ra jende mordoa joaten da.



## kale inkesta

## Hasi da sagardotegi garaia. Aurtengo denboraldian joateko asmorik baduzu?



**Roberto Lizarralde**  
Langilea  
Oñati

Ez, aurtun ez naiz sagardotegira joango. Inoiz joan izan naiz baina, egia esan, ez daukat ohiturarik. Gainera, asti barik ibiltzen naiz; nik ahal izatean dudanean lagunek ezin izaten dute, eta alde-rantziz ere gertatzen da.



**Gurutze Arkauz**  
Langilea  
Oñati

Bai, urtero joaten gara eta aurtun ere Astigarra-ga aldera joango gara; familia giroan joaten gara, eta oso ondo pasatzen dugu. Ez gara beti sagardotegi berera joaten; normalean aldatu egiten dugu.



**Jorge Santos**  
Langilea  
Oñati

Ez, ez daukat sagardotegietara joateko ohiturarik. Gutxitan bada ere, inoiz joan izan naiz sagardotegira baina ohitura bezala ez gara joaten. Beraz, aurtun ere, sagardotegira joan gabe gertatu naiz.



**Miren Aranburu**  
Langilea  
Oñati

Bai urtero joaten gara, koadrila giroan; autobusa hartu eta Hernani ingurura joateko ohitura izaten dugu. Noizbait, Arrasateko lagunekin Aramaioko Iturrieta sagardotegira ere joan izan naiz.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

## ANTZUOLA-BERGARA

## &gt; Antzuolarako bideetako nahasmena

Irakurle batek Antzuolara joateko dauden bideei buruzko iruzkin bat egitea gura du. Arrasatetik etorruta, Labegarietako birlilgunetik Antzuolara joateko bi modu daude: saihesbide berri-rik edo Zubiaurretik Bergarara sartuta. Hala, azaltzen du biribilgunean seinaleek saihesbidetik eramaten zaituztela. Horretaz gain, azaltzen du Zubiaurreko bideak "hiru bat kilometro" dauzkala eta "saihesbideko seinaleek ere diote bide horrek hiru kilometro dituela eta hori gezurra da, ia luzera bikoitza du eta".

## BERGARA

## &gt; Autobus geltokian, elbarriendako mailarik ez

Bergarako autobus geltokian elbarriak autobusetara igo ahal izateko espaloian maila nahikoa ez dagoela salatzen du irakurle batek. Era berean, azaltzen duenez, Pesako autobusen ordutegietan zerbait autobus elbarriendako egokituta daudela esaten da eta, hark salatzen duenez, hori ez da betetzen, hau da, "elbarrientzako egokituta daudela jartzen duenean ohiko autobusak etortzen direla".

## DEBAGOIENA

## &gt; Ordutegirik ez autobus geltokietan

Irakurle batek galdetzen du ea zergatik autobus geltokietan ordutegirik jartzen ez duten. Tarte honetatik eskatu gura dio horren ardura duenari (Udala ala Pesa) bere lana bete dezala.

## ustek uste

Irati Agirreazaldegia

## Berotik hotzera

**D**anbor hotsek, trumoi hotz. Negua berandu baina ba omen dator zorrotz. Aste honetatik aurrera euri, oinaztu eta hotz.

Hotzarekin batera ura, denok itxaroten genuen hura, azkenean heldu da, nora eta gurera, Urkulura.

Larritzeko arrazoirik ez zen adituen esanetan, baina apur bat denok kezkatu gara, benetan.

Hasi dira euri tantak, eta laster elurra. Lehorteari agudo galdu diogu beldurra eta orain denoi hoztuko zaigu muturra.

Hoztu edo berotu norberak egin dezala aukera. Joaten ez dena eskiatzera, agian abiatuko da sagardotegiko kupel artera, edo bestela txakolina edatera.

Kanpoan hotz eta barrua bero; eguraldia bezalatsu gu ere nahastuta gabiltza gero.

## zorroztailea



Markos Balentziaga

## Aznarren keizpe luzia

"Zigortuetako inori ez diote leporatu ekintza armatutan parte hartzea, ezta erakunde armatuko kideen laguntzaile izatea ere (...). Prentsaurrekoak eman dituzte, kartelak jarri, txosnetan lan egin, mobilizazioak antolatu. Terrorismoa. Espetxea."

Imanol Murua Uria  
Berria > 2007-01-20



**A**stegienean zehar hedabide guztietako notizia izan da Espainiako Auzitegi Gorenak, egubakoitzean, —3 boto 2ren kontra emonaz— ebatzi ebana: Jarrai-Haika-Segi gazte-erakunde terrorista dala.

PSOEk Gobernuaren agintea daukanetik ez da nekeza alderdi horren inguruko hedabideak Aznarren herentzia judizialaz penatuta, negarrez harrapatzea; oraingoan ez.

Aznarrek PPren soka ideologikoko jendea ipini eban Aginte Judizialean, Auzitegi Gorenearan eta ahal izan eban zirrikitu guztietan. Politika horren osagarri, gainera, AVT, *Manos limpias*, eta antzeko erakundeak auspotu zituan.

Eta juezen gusto politikokoak —esanak esan— erabakitzaileak dira. Ondo daki hori, Euskadin, PPko jendeak, barbarako. Iturgaizek, Urquijok, Oiarzabalek... ohitura bihurtu eban, hedabide-tan orain baino sarritxoago agertzen ziranean, "kontu hori erabagi dagiala juezak" modukoak esatea; esakuna "juezak...", gure lagunak gaineratuta biribiltzea baino etxak faltar izaten.

Orain, hona hemen egoera horren ondorena: eguakitzeko epaia.

Zapatuko *Berria*-n Imanol Muruak idatzi eban "Zigortutako inori ez diote leporatu ekintza armatutan parte hartzea; ezta erakunde armatuko kideen laguntzaile izatea ere; inori ez diote egotzi kale eraso jakin baten gaineko erantzukizunik". Eta, hala eta guztiz be, talde armatuko kideetat jo ditu Auzitegi Gorenak.

Ez dot nik hemen segituko hedababideetan, epaiak esandakoak berritzen: Barajasko atentatuaren ondoko giro politikoa; epaibidean diran beste auzi judizialekoak sortu dan jurisprudentzia; jarduera asko terroristatzat joteko urratzen dan bidea, eta abar.

PPren zortzi urteko agintaldiak uste baino keizpe luzeagoa dauka, eta keizpe gaiztoa da, gainera, euskal munduarentzat. Horra zertan garan.

**"Aznarrek PPren soka ideologikoko jendea ipini eban zirrikitu guztietan"**

**"PPren agintaldiaren kerizpea gaiztoa da euskal munduarentzat"**

## Goienkaria

Argiraratzailera Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Erredaktoria Mireia Bikuña, Jon Berebizar, Arantzazu Ezkibel eta Irati Agirreazaldegia Oinarrizko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano, Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

## EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Oñalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale

## Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



## > ARRASATE

Gaur, astelehena, hasiko dira Zerkaosteta kalea oinezkoendako hobetzeko obrak > 10



## > OÑATI

Kasablankan 120 etxebizitza egiteko arau berria onartu du Foru Aldundiak > 12



## > ESKORIATZA

Bidegiko zuzendariak azalpenak emango ditu Batzar Nagusietan AP-1eko obren gainean > 13



HUTSIK GERATZEAR Aurrerantzean, areto hori ez dugu jendez beteta ikusiko; ez, behintzat, herriko liburutegi nagusi moduan. Orain, liburuz hustea falta da.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > GAUR HASI DIRA MONTERRONGO LIBURUTEGIA HUSTEN

# Artxibategi historikoa egingo dute Monterronen, eraikin-erantsi batekin

## ERAIKIN-ERANTSIA

Udalak Aldundiaren onespina dauka Monterroni beste eraikin bat gehitzeko

## INAUGURAZIOA

Kultur etxe berria otsail amaierako gertu izan gura dute herritarrendako

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Gaur da hastekoa Leioako enpresa bat Monterrongo liburutegia husten. Gutxi gorabehera, hilabete barru irekiko dute Seberreko kultur etxe berria, eta bi-hiru astetan eramago dituzte Monterrongo fondoak hara, ia 37.000 ale, liburu, aldizkari, DVD eta diskoekin, besteak beste. Monterron jauregiak, hogeita bat urtetan kultur etxe izandakoak, otsailean luzatuko dio lekukoa frantziskotarren komentu ohiari.

Behin hutsik, Udalaren artxibategi historikoa Monterronen egitea da nahia, Inazio Lakuntza alkateak azaldu moduan: "Oraindik guztia erabakitzeko dago, baina asmoa garbi daukagu", dio Lakuntzak. Halere, oraindik ez dira teknikariek batzartu, eta proiektu zehatzik ez daukate, baina hainbat xehetasun aurreratze-

ko moduan dago Udala. Hain zuzen ere, Aldundiari kontsulta egin eta gero, Udalak Monterrongo jauregiari gehi dakion eraikin-erantsi bat jasotzeko onespina dauka. Horretaz gain, igogailua eta ikerlariendako kontsulta-gela ere egingo direla argitzen du Lakuntzak. Artxibategiaz gain, orain arte bezala, bestelako ekitaldiak egiten

jarraituko dela dio hark. Eguneroko kudeaketarako artxiboei dagokienez, udaletxean jarraituko dutela dio Lakuntzak.

## LIBURUTEGI BERRIA

Bizpahiru astez, ez da egongo ohiko liburutegi zerbitzurik. Tarte horretan –fondoak eroan eta kokatzeko beharko duten denbora–,

bazkideek kultur etxe berriko sarreran egokitu duten postontzi baten itzuli ahal izango dituzte materialak. Postontzi horrek, gainera, aurrerantzean liburutegi-ko ordutegitik kanpo materialak uzteko balioko du.

Instalazio berriei dagokienez, bi-hiru asteko epean antolatu gura dituzte. Berrikuntzak eta, baita ere, asmo handiak dituzte liburutegian: liburutegi berriarekin, fondoak handitzeko asmoa daukate. Mertxe Perez de Ziritza bibliotekako arduradunak dioenez, nazioarteko bi edo hiru liburu izan behar dituzte udal liburutegiek, eta kopuru horretara heltzea da asmoa, hau da 50.000 bat aletara. Guztia, baina, "aurrekontuen eta erabaki politikoen menpe dago", Perez de Ziritzak azaltzen duenez. Epe ertainerako helburuak lirateke horiek.

## Bibliotekako egungo fondoak

	KOPURUA
Liburuak	28.462
Bideoak eta DVDak	2.770
CD-ROMak	477
CDak	1.440
Mapak	21
Aldizkariak	3.117

DATUA

# 28.462

LIBURU

Horiek dira egun udal liburutegiak dituen biblioteka-fondoak, aldizkari, DVD, disko eta abarrak kontatzeke. Epe ertainerako asmoa da fondoak 50.000 aletara iritsi ahal izatea.



OBRAK &gt; ARRASATE PASEALEKUAN, KONTZEZINON ETA ZERKAOSTETAN OBRAK EGINGO DITUZTE

# Gaur hasiko dira Zerkaosteta inguruak egokitzen, obrak egiteko

Arrasate Pasealekutik Kontzezinora bitarteko ibilgailuak kendu egingo dituzte

Besteak beste, egokitu behar dute Zerkaosteta oinezkoek lehentasuna izateko

UBANE MADERA > ARRASATE

Gaur, astelehena, hasiko dira Zerkaosteta kale inguruan obretarako txabolak ipintzen eta gune hura obra egiteko preparatzen. Izan ere, Iturbide egoitzatik hasi eta Maisu Aranora (Portaloira) arteko zati hori egokitu egingo dute, oinezkoek lehentasuna izan dezaten. Kontzezinorainoko errepide zatian eta Arrasate Pasealekuaren lehenengo zatian ere (Batzokiraino) egin behar dituzte obrak.

Obren ondorioz, gaur, astelehena kendu egin beharko dira Arrasate Pasealekutik Kontzezinorainoko zatian dauden ibilgailuak. Zerkaosteta kaleari dago-kionez, berriz, obrek aurrera egin ahala hango zirkulazioa ere kentzen joango direla adierazi dute Udaleko Obra Sailetik.

Aurreikuspenen arabera, sei hilabete iraungo dute lanek. Aurrekontua 1,4 milioi eurokoa



GALTZADA HARRIA Zerkaostetan (argazkian) galtzada harria ipiniko dute, Mondragones kalean egin zuten moduan.

GOIENKARIA

izango da, eta Amenabar enpresak egingo ditu lanak.

MONDRAGONES KALEA MODUAN

Obra Sailak esandakoaren arabera, Arrasate Pasealekuaren errepide zatian eta Kontzezinorako errepidean asfalto ipiniko

dute. Zerkaostetatik Maisu Aranorako zatian, berriz, galtzada harria, "Mondragones kalean egin dugun moduan", argitu dute.

Obrak bukatu eta gero, alde zaharrera Maalatik sartu beharko da ibilgailuarekin. Zerkaostetara, berriz, bakarrik sartu ahal

izango dira zamalanak egiteko, hango bizilagunak eta han gara-jea dutenak.

Arrasate Pasealekuari dago-kionez, noranzkoa aldatu egingo diote. Hala, orain handik bakarrik behera egin daiteke, bada gero, gora egin beharko dugu.

15 eta 25 urte arteko 1.816 gazteri etxez etxe bidaliko diete *Zureiragarkia.net*-en gainerako esku-orria

U.M. > ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako gazte bulegoek gazteei zuzendutako bloga abiarazi zuten irailean: *Zureiragarkia.net*.

Hala, gaur, astelehena, hasi eta oraingo astean zehar, Arra-

ZERBITZUAK > GAZTEENDAKO EKIMENA

## 'Zureiragarkia.net' bultzatzeko kanpaina, oraingo astean

sateko Gazte Bulegoak herriko 1.816 gazteri etxera bidaliko die blog horren gainerako informazioa, 15 eta 25 urte arteko gazteei, hain zuzen ere: "Orain arte blog hori gutxi erabili dute arrasatearrek eta bultzada emateko", adie-

razi du Gazte Bulegoko ardura-dun Dorleta Kortazarrek.

IRAGARKI TAULA DIGITALA

Blog hori da "gazteei zuzendutako iragarki taula digitala; doan da, gura duten iragarkiak ipintzeko",

Hainbat atal ditu: "100 mezu daude eta gehien erabiltzen diren atalak dira *Saldu nahi dut* eta *Lan bila nabil*", dio Kortazarrek. Lan eskaintzak, etxeak alokatzekoak, harremanetakoak edo gauzak trukatzekoak ere sar daitezke.

IKUTIXOKO ZABORTEGIA

## EBk eskatu du geratzea Ikutixoko proiektua

Zaborteziaren proiektua ingurumen azterketa egin arte geratzeko eskatu du

U.M. > ARRASATE

Ikutixon zabortezi bat eraiki gura du Udalak, inguruko obren hondakinak hara botatzeko; zabortezi zerbitzua bete eta gero, gune hura industrialde bilakatu gura du.

Proiektu hori dagoeneko jendaurrean dago, alegazio epean. Baina Ezker Batuaren udal taldeak eskatu dio alkateari proiektua geratzeko, harik eta ingurumenean izango duen eragina aztertu arte: "Proiektua jendaurrean dagoen arren, Ingurumen Saileko teknikariak ez du egin azterketarik jakiteko zabortezi batek Ikutixoko moduko ingurune natural baten izango duen eragina".

ONDASUN NATURALA

Halaber, EBk jakinarazi du proposamen horrez gainera, zaborteziaren kontrako alegazioa ere prestatzen dabilzela, "gure udalerraren Ondasun Naturalak zaintzeko beharrezko gainera izango da, Ondasun berba Moneta berbaren aurrean ipintzen dutenen parean".

> DENDAK

## Merkealdi azoka izango da otsailaren 24an eta 25ean

Arrasateko Udalak merkealdi azoka antolatu gura du, herriko merkatariei bultzada emate aldera. Bada azoka hori egiteko data zehaztu zuten joan den egubakoitzean, hilaren 19an. Hain zuzen ere, otsailaren 24an eta 25ean egingo dute. Ordutegia ere zehaztu dute: etengabekoa izango da, 10:00etatik 20:00ak arte.



**Ikustekoa!**

DEBARRI / Babeslea



Arrasate hizpide

INAZIO LAKUNTZA ARRASATEKO  
ALKATEAREKIN BERBETAN

Eguaztena 24, 21:15ean  
Alberto Gorritibereak aurkeztuta

AURREZ GALDERAK EGITEKO: WWW.GOIENA.NET WEBGUNEAN  
EDO 943 71 23 95 TELEFONO ZENBAKIAN.





ZAHARBERRITZEA > 'SAN MATEI' ERMITA

# Uberako ermita konpontzeko proiektua onartuta dute dagoeneko

Gotzaindegiak eta Aldundiak finantzatzeko dute lanen zati bat eta auzolanen egingo dute bestea

Erretaula konpondu, hezetasuna kendu eta lurra aldatu dira egingo dituzten konponketako batzuk



ERMITA Uberako San Emeterio eta San Celedonio ermita.

JOSETXO ARANTZABAL

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Uberako ermita konpondu egingo dute. Auzo batzarrak onartu zuen lehenengo asmoa eta dagoeneko proiektua eta gutxi gorabeherako aurrekontu bat ere egingo dute. Gotzaindegiari eta Aldundiari eskatu diote dirulaguntza ermita berrizatzeko, baina auzolana ere egingo dute.

EGURREZKO SANTUAK

Ermitaren erretaula, adibidez, Aldundiaren laguntzarekin berriztatuko dute: "San Emeterio eta San Celedonio santuak daude ermitan, egurrezko irudiak dira, eta horiek ere konponduko ditugu", azaldu digu Jesus Elortza Uberako auzo alkateak. "Horrez gain, ermitak egurrezko posteekin egindako itxitura du; kanpotik barrua ikusten

da, eta barrutik kanpoa. Eurria egiten duenean ez gara bustitzen, baina kanpoko tenperatura bera egiten du barruan. Itxitura hori duten ermita bakarrenekoa da, eta hori ere kontserbatu nahi dugu. Horretarako, asmoa dugu poste horiek beste material batekin babestea eta kristala jartzea", jarraitu du Jesus Elortzak.

HEZETASUNA KENDU

Horrez gain, hezetasuna ere kendu nahi diote ermitari. "Ermitaren atzealdean lur asko dago, eta hori kendu egin beharko dugu, akaso. Bestalde, paretak nola dauden ere aztertu behar dugu

eta lurzorua ere aldatu nahi dugu. Beste baldosa batzuk jarriko ditugu gero akaso. Lan horiek auzolanen egingo ditugu", azaldu du Uberako auzo alkateak.

Jesus Laskurain aparejadore bergararrak egin du konponketaren proiektua. "Dirulaguntzak ere eskatu ditugu, baina oraindik ez dugu erantzunik jaso. Ez nago ziur aurtengo aurrekontuetan sartu dituen Aldundiak edo ez", argitu du Jesus Elortzak.

Ermitaren ardura auzoko baserriek eramaten dute txandaka, hiruk aldiro, eta horiexek arduratzen dira garbitzeaz, zabalteaz eta ixteaz edo inguruak txu-

kuntzeaz, adibidez. Iraileko lehen domekan ospatzen dute ermitako jaia eta, mezaz gain, auzo bazkaria egiten dute, ermita barruan.

SAN PAULO JAIK ASTEBURUAN

San Emeterio eta San Celedonio ermitaz gain, San Paulo eliza ere badago Uberan, eta eliza horretako jaiak ospatuko dituzte datorren asteburuan. Eguenean, San Paulo eguna, meza egingo dute. Egubakoitzean, San Paulo Txiki ospatuko dute, zapatuan patata-tortilla txapelketa eta kukainen jolasa egingo dute, eta domekan, dantza taldearen erakustaldia.

> ELKARTASUNA

## Gaur da azken eguna Sahara bidaltzeko janariak emateko

Gaur, astelehena, da Sahara bidaltzeko janariak emateko azken eguna. Atuna oliotan, arroza, dilistak eta konpresak batu nahi dituzte aurtun. Sahararen aldeko euskal karabanan bidaliko dituzte batutako pakete guztiak. Nahi duenak, herriko janari dendetan jarritako kaxetan sar ditzake eskatutako produktuak. Bihar, batutako produktuak kaxa egokitan sartuko dituzte bidaltzeko. Mariaren Lagundiaren ondoko eraikinean egingo dute hori, 18:00etatik aurrera. Nahi duenak laguntzera joan daiteke.

> ZOZKETA

## Bedelkarreko Gabonetako sariak emateko daude

Bedelkarrek, Bergarako dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarteak, bakoitzak 200 euro dituen 15 sari zozketatu ditu Gabonetan. Oraindik ez dira saritutako txartel guztiak agertu, eta zorte oneko zenbakiak zeintzuk diren gogoratu nahi du Bedelkarrek. Hauexek dira saria duten zenbakiak: 08.373, 09.183, 14.227, 31.137, 48.030, 52.358, 60.201, 61.008, 50.938, 62.383, 70.318, 71.376, 79.715, 80.969 eta 85.101. Zenbaki bakoitzak 200 euroko saria du, eta txartela eman dioten dendan aurkeztu behar du saria jasotzeko.



JOSETXO ARANTZABAL

## Bilboko udal musika banda frontoian

Bergarako udal musika bandak gonbidatuta, Bilboko bandak kontzertua eman zuen udal pilotalekuan egubakoitz gauean. Aurten 175 urte beteko ditu Bergarako udal musika bandak eta urteurrena ospatzeko egitararen barruan sartzen da kontzertua. Hiru banda gonbidatu ditu: Bilboko, Gasteizkoa eta Tolosakoa. Gasteizkoen txanda martxoaren 25ean da eta Tolosakoak apirilaren 22an joko du. Urteurrenako liburua egiten eta CDA grabatzen ere hasi dira.

> PRESOK

## Antxon Sasiain absolbitu egin du Auzitegi Nazionalak

Antxon Sasiain bergararra absolbitu egin du Auzitegi Nazionalak. Sasiain 2001ean atxilotu zuten Frantzian. Bost urteko espetxe zigorra jarri zioten. Zigorra bete zuenean, Espainara extraditatu zuten, eta joan den abenduaren 20an atera zen espetxetik. Orain, Espainiako Auzitegi Nazionalak errugabetu egin du. Behar baino urtebete gehiago egin du preso.

> PRESOK

## Presoak bisitatzeko bidaietan laguntzeko errifak daude salgai

Bergara, Antzuola eta Elgetako presoak bisitatzeko senideek egin behar dituzten bidaietan laguntzeko errifak atera dituzte. Tabernetan daude salgai txartelak hiru eurotan. Txartel horrekin, hila-bete oro sari hauek irabazi daitezke: astelehenetik eguenera, 30 euro, eta egubakoitzean, 60, Onceko zozketetan. Otsailaren 23an, 300 euroko saria dago.

**UGARTE**  
AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak  
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



ETXEBIZITZAK &gt; ETXE BERRIAK

# Kasablankan 120 etxebizitza eraikitzeke arau berria onartu du Foru Aldundiak

Eraikiko diren etxebizitza berrietatik 24 babes ofizialeko etxeak izango dira

Kasablanka sektoreak bi gune izango ditu: Hegoaldea eta Iparraldea

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundiak Kasablanka sektoreko esku hartze guneari dagokion Oñatiko hiri antolaketako arauak berrikustea onartu berri du.

Hala, Kasablankako gunean bi jardunketa aurreikusten ditu; bat, Kasablanka Hegoaldea izeneko gunean, eta bestea, Kasablanka Iparraldea deritzon gunean. Horietan, 120 etxebizitza eraikiko dira; etxeetatik 24 babes ofizialekoak izango dira, eta beste 96, prezio tasatukoak.

## PREZIO MUGATUKO ETXEAK

2006ko martxoko Osoko Bilkuran onartu zuen Oñatiko Udalak Kasablankako lurjabeekin hitzarmen sinatzea. Hitzarmen haren helburu nagusia tasatutako edo prezio mugatuko etxebizitzaren promozioa sustatzea zen. Lurjabeek begi onez ikusi zuten proposamena.



KASABLANKA Urbietan (argazkian) eta Auntzokua baserrien arteko gunean, 60 etxebizitza eraikiko dira.

MIREIA BIKUÑA

Martxoko Osoko Bilkuran onartutako hitzarmenean, etxe tasatuek izango zuten prezioa jasota geratu zen. Hala, eraikitako metro koadro bakoitzeko 1.717,18 euroko prezioa izango dute. Garaieak 18.030 euro kostako dira.

Edozelan ere, prezio horiek 2006. urtean onartutakoak direnez, eguneratu egin beharko dira etxeren zozketa egiten denean.

Hala, prezio horri urtero Kontsumo Prezioen Indizea gehitu beharko zaio.

## ADJUDIKAZIOA ZOZKETA BIDEZ

Kasablankan eraikiko diren 96 etxebizitza tasatuak zozketa publiko bidez esleituko ditu Udalak. Udala bera izango da zozketa egingo duena, eta baita parte hartze-ko baldintzak zehaztuko dituena.

## ELKARTASUNA

# Ia 2.000 kilo material jaso dute Sahararako

Atun latak, arroza, lentejak eta konpresak jaso dituzte

M. B. &gt; OÑATI

Piztu itxaropena, Sahararekiko elkartasun kanpaina, arrakastatsua izan da Oñatin. Atun latak, arroza, lentejak eta konpresak izan dira elkartasun kanpainaren baitan jasotakoak. Hala, ia 2.000 kilo material jaso dute.

## KOPURUA HIRUKOIZTU

Bukatu berri den kanpainako datuak iazkoekin alderatuta, batutako material kopurua ia hirukoiztu egin dela ikus daiteke, iaz 761 kilo material bildu zuten-eta.

Herriko hainbat dendatan jarrita zeuden karroetan eta, batez ere, ikastetxeetan jaso dute materiala. Azken hiru urteetan, herriko hainbat ikastetxe elkartasun kanpainarekin bat egin dute. Hala, euren instalazioetan materiala biltzeari ekin diote.

Debagoienean lan egiten duten Sahararekiko elkartasun taldeek eskualdeko material guztia Arrasaten zentralizatu dute; gero, Donostiara bidaliko dute.

ZERBITZUAK &gt; TOLDO BERRIAK AZOKARAKO

# Plazako merkatuko fatxadak ixteko toldo biribilgarriak aste bukaeran estreinatu dira

Toldos Iraola enpresak jarritako bederatzita toldoak zabaltzen direnean, azoka plazan argi elektrikoa jarri beharko da

M. B. &gt; OÑATI

Neguan gaudela eta, unerik proposenean estreinatu dituzte plazako merkatuko toldo biribilgarri berriak. Joan den astean instalatu zituzten, eta zapatuan erabili zituzten lehen aldiz.

## HAIZE BABESA

Astero plazako merkatura hurbiltzen diren saltzaileek eta erosleek egindako kexei erantzuna eman die horrela Udalak. Bada, azoka guneak ez du haize babesik, eta neguko zapatuak gogorak izaten dira.



ESTREINATU Argazkiaren ezkerrean toldoetako bat ikusten da.

M.B.

Gris kolorekoak dira toldoak. Negu partean, haizearen %90 kenduko dute; baina baita argitasuna ere. Hortaz, zapatu goizetan,

azoka plazan argi elektrikoa jarri beharko da aurrerantzean.

Azoka guneko toldoen aurrekontua 16 mila eurokoa izan da.



GOIENKARIA

# Gabonetako zozketako irabazlea

Asier Arregik irabazi du Aloña Mendiko futbol saileko Gabonetako saskia. 3.149 zenbakiaren jabe izatearren jaso du sail horretako presidentearen, Javi Azpiazuren eskutik, sari potoloa. Bigarren saria, Fiteroko bainuetxean aste bukaera, Esther Moiuak irabazi du. Hirugarren sariduna, Reala ikusteko lau sarrera, ez da agertu.



ESKORIATZA > AP-1-EKO LANAK

# Nestor Arana hilaren 30ean egongo da Batzar Nagusietan

AP-1eko Zarimuzko tartean egindako ekintzen gainean galderak erantzun beharko ditu Aranak

Aralar alderdiak eskatu zuen Arana azaltzea, eta Batzar Nagusiek eskaera hori onartu berri dute

A.G. > ESKORIATZA

Nestor Arana, Bidegiko zuzendaria, Gipuzkoako Batzar Nagusietan izango da urtarrilaren 30ean, martitzena, Eibar-Gasteiz autobideko Eskoriatzako lanen gaineko azalpen batzuk emateko. 11:30ean hasiko da saioa.

Batzar Nagusiek joan den martitzenean, hilak 16, onartu zuten Bidegiko arduradun nagusiari bertaratzeko eskatzea, Bide Azpiegituren Batzordearen bidez. Aralar alderdiak eskatu zuen

agerpena, baina, eskaera egiteko, Batzar Nagusiek onartu egin behar zuten lehenengo, eta hala gertatu da.


**ZARIMUTZEN IRREGULARTASUNAK**

Rebeka Ubera Aralarreko batzarkidearen esanetan, Aranak "galderei erantzun, bere iritzia eman eta izandako jarrera azaldu" beharko ditu hilaren 30eko agerraldian. Han esaten duenaren arabera, agerraldi horrek "ondorioak" izan ditzakeela esan digu

Uberak, nahiz eta, oraingoz, ezer gehiago aurrera ez daitekeen.

Bidegik Eskoriatzan egindako ekintza batzuegatik eskatu du Aralarrek Nestor Arana Batzar Nagusietan azaltzea; hain zuzen, Zarimuzko lanetan ustezko irregulartasun batzuk salatu zituen alderdi horrek.

Aralarren arabera, lan horien gainean helegiteak aurkezteko epea oraindik zabalik zegoenean eta lanen baimena eman gabe zegoenean eginda zeuden dagoneko obrak. Hain zuzen, azaroaren 10etik 30era bitartean zegoen zabalik informazio publiko epea, baina, alderdiak salatzen duenez, azaro erdialderako lanak bukatuta zeuden. Onbide.org kalte-tutako herritarren elkarteak ere salatu zituen bere egunean Bidegiren hainbat ekintza.



Nestor Arana.

GOIENKARIA

> MAHAI INGURUA  
**Oraingo egoeraren gaineko mahai ingurua, atzeratuta**

Euskal Herriko momentu sozial eta politikoaren azterketa izenburuaz martitzenerako antolatutako mahai ingurua atzeratu egin dute antolatzaileek, Aitzorroztz kultur elkartekoek, parte-hartzaile guztiek ezin zutelako orduan egon. Jakinaraziko dute data berria.

> ZOZKETA

**Dendarien Gabon garaiko zozketan, 10.660 da sariduna**

Eskoriatzako merkatariek Gabonetan egindako zozketako lehen sariduna, 10.660 zenbakidun txartela da, ez 18.281a duena, joan den astean argitaratu bezala. 18.281 zenbakidun txartelaren jabeak bigarren saria irabazi du. 1.000 euro eta afaria dagozkie 10.660 zenbakia daukanari.



INAUGURAZIOA Atzo, domeka, inauguratu zuten zerbitzu berria jaialditxo batekin.

JOSETXO ARANTZABAL

ARETXABALETA > LUDOTEKA

# Zabalik dago Algarako domeketako zerbitzua

Herriko 8-12 urte bitarteko umeei neguko asteburuetan aisialdi eskaintza eman gura die

A.G. > ARETXABALETA

Zabalik dago Algara ludoteka domekatan 8 eta 12 urte bitarteko umeak joan daitezten. Joan den asteburuan egin zuten inaugurazio jaialdia egoitzan bertan, merienda batekin. Zerbitzu berria da Aretxabaletan, eta otsailaren 11ra arte egongo da zabalik. Hala,

ludoteka domeka arratsaldero egongo da zabalik 17:30etik 19:30era, adin horietako umeei ondo pasatzeko baliabide bat eskaintzeko.

Programa horretan parte hartzeko, ez dago izena eman beharrik; nahikoa dute neska-mutikoei hara joatea.

**NEGUKO ALTERNATIBA**

Udal Gazteria sailaren esanetan, koadrilan irteten hasi diren neska-mutikoei zerbitzua eskaintzea da helburua: neguan, aisialdi aukerak gutxiago direnean, alternatiba bat emango die ludotekak.

Hala, datozen asteotaroko ekintzak antolatuta daude: munduko jolasak egingo dituzte hilaren 28an; *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma ikusiko dute otsailaren 4an, eta izotz pistara joango dira 11n.

ARETXABALETA > AISIALDIA

# Flamenko erritmo eta kajoi jotze ikastaroa dago

Izenematea lehenbailehen egin behar da, leku kopuru mugatua ezarri dute eta

A.G. > ARETXABALETA

Herriko Jaiki elkarteak ekintzak antolatzen jarraitzen du. Oraingoan, ikastaro bat iragarri dute otsail hasierarako: hain zuzen, elkarte horrek, Udalaren laguntzarekin, flamenko eta kajoi jotze ikastaroa antolatu du.

Ikastaroan izena eman gura dutenek badute horretarako aukera Azkena tabernan edo Arrasateko Aker Tattoo dendan. Lehenbailehen izena ema-

tea komeni da, leku kopuru mugatua dago eta. Matrikula 45 euro da.

**BI MAILA**

Eskolak otsailaren 7an hasiko dira eta eguaztenero izango dira, martxo amaierara arte, Kurtzebarri eskolan. Hasiera mailako taldeak 18:30etik 19:30era izango ditu saioak, eta aurreratuek, 19:30etik 20:30era. Irakaslea Sergio Landaetxe gasteiztarra da.



JOSETXO ARANTZABAL

# Literatura lehiaketako saridunak

Loramendi euskara elkartearen literatura lehiaketako sariak banatu zituzten joan den egubakoitzean, hilak 19, ekitaldi baten. Inoiz baino arrakastatsuagoa izan da edizio hau: 290 lan aurkeztu dira. Durango azokan erositako materiala edo erosteko txekuek eman zizkieten saritan, eta horiek eskuetan dituztela agertzen dira argazkian.



ANTZUOLA &gt; HITZARMENA

# Bergarako musika eskolarekin hitzarmena sinatzea erabaki du Udalbatzarrak

Udalbatzarrak aho batez onartu zuen hitzarmena sinatzea, modu horretara Bergarako musika eskolako irakasle batzuek Antzuolan bertan irakasten jarrai dezaten

LEIRE KORTABARRIA &gt; ANTZUOLA

Bergarako musika eskolarekin duen elkarlana formalizatzeko hitzarmena sinatzea onartu du Udalak. Hala erabaki zuen aho batez joan den egubakoitzean, hilak 19, Udalbatzarrak. Hitzarmen horren bidez, Udalak onartzen du Bergarako musika eskolari Eusko Jaurlaritzak musika eskolen kasuan finkatzen duen ikasle bakoitzeko dirulaguntza ematea, eta erakunde bakoitzaren betebeharrak eta eskubideak arautzen dira.

Horrenbestez, Bergarako musika eskolak Antzuolan irakasten jarraituko du, iaz geroztik egin duen moduan.

BI IRAKASLE DATOZ BERGARATIK

Antzuolako ume eta gaztetxoek herrian bertan dituzte orain 1. eta



MUSIKA-TRESNAK Antzuolako umeek Bergaran jasotzen dituzte musika-tresna eskolak; gainerakoak, Antzuolan. GOIENKARIA

2. mailako musika hizkuntza, ahots teknika eta koral eskolak, astean hiru egunetan. Horretarako, Bergarako musika eskola-

ko bi irakasle Antzuolara etortzen dira, umeek Bergara joan-etorria egin behar ez izateko. Antzuolan 50 bat matrikula ditu

eskolak, baina han ikasten dutenak 30 bat dira, instrumentua ikasteko Bergarara joaten jarraitu behar dute eta.

ELGETA

## Julen Barrutia, Ozkarbiko presidente

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ELGETA

Ozkarbi elkarteak egueneko batzarrean aukeratu zuen zuzendaritza batzorde berria. Aurrez batzordean zeudenetik, Oier Billa, J.M. Untzetabarrenetxea, Aitor Lezama, J.L. Arizmendiarieta, J.R. Sarasua eta Julen Barrutia geratuko dira; azken honek hartuko du presidente kargua Gaizka Bolinaga ordezkatzuz. Batzordea osatuz, taldean sartuko dira Mikel Mandaluniz, (presidenteordea), Etor Sarasua, Eneida Elorriaga, Itziar Olabe, J.A. Beretxinaga eta Karmelo Larrarte.

&gt; ELGETA

## Gerra Zibilaren gaineko ekitaldien aurkezpena egunean

Urtarrilaren 25ean, eguna, Espainiako gerraren gainean martxoan egingo dituzten ekitaldiak aurkeztuko dituzte Espaloian 10:00etan. Besteak beste, gerran hildakoen omenez monumentua jarriko dute Aseztion, eta orduko armekin eta argazkiekin erakusketa egingo dute Espaloian. Bazkaria ere izango da.

ARAMAIO &gt; SAN SEBASTIAN MEZA SASTIÑAN

## San Sebastian eguneko meza tradizionalari eutsi zioten berriro 60 bat herritarrek

Sastiñako ermitan San Sebastianen bederatziurrena egin zuten, eta meza entzutera batu ziren San Sebastian egunean

L.K. &gt; ARAMAIO

Aramaioko sinestun askok San Sebastian omendu zuten santu horren egunean, egubakoitza, hilak 19, Sastiñako ermitan. Hain zuzen, Bederatziurreneta baino jende gehiago agertu zen, 60 bat lagun, gutxi gorabehera. Batik bat, San Sebastian ingurukoak eta pertsona nagusiak inguratu ziren mezetara. "Beste urte batez ere, gure ohitura horri zintzo eutsi diogu", dio Aramaioko parrokoak, Emilio Perezek.

OIHARTZUN ZABALA ZUEN

San Sebastianen bi kantak bizi-rik diraute. Perezen esanetan,



MEZA San Sebastian eguneko meza, Sastiñan.

JOSETXO ARANTZABAL

"Sastiñako bederatziurrenak oihartzun zabala zuen, eta auzo guztietatik etortzen ziren, baita izotz eta elur galantak zirenean ere. Gaur, gehienbat, Ibarrako plazakoek jarraitzen dute". Hala ere, azaldu digunez, "ermita Aramaioko plazan dagoenez, han ger-

tatzen den edozerk herriarekin zerikusia du".

Beste arrazoi batzuetatik ere bada garrantzitsua Sastiña ermita: hain zuzen, Aramaioko artxiboa ere izan da. Oraindik ermitan jarraitzen du artxiboko burdinazko atek.



ARATUSTEAK Urtero ekintza bereziren bat dute Gatzagako umeek. GOIENKARIA

LEINTZ GATZAGA &gt; GUREL GURASO ELKARTEA

## Umeendako Aratuste jaia gertatzen hasi da Gurel

L.K. &gt; LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteko kideak hasi dira dagoeneko Aratuste-eko ekitaldiak prestatzen; hori dela eta, joan den aste bukaeran ez datozenetan ere, ez dute aparteko ekintzarik egingo. Gureleko batzordekideek esan digutenez, urtero bezala, aurten ere umeendako jaialdi bat antolatu gura dute, eta

horrek lanpetuta dauzka gurasoak, oraingoz.

AUKERA BERRIAK

Edozelan ere, orain dela gutxitik, ludoteka eta liburutegi zerbitzua dute Gatzagako umeek astelehenetik egubakoitzera, eta oso harrera ona dute bi zerbitzu berri horiek. Liburutegia helduek ere erabiltzen dute.



# Kirola



> **FUTBOLA**  
Mondrak 4-0 irabazi du bigarren itzuliko lehenengo partidua > 18



> **FUTBOLA**  
Emakumezkoen BTLs taldea igoera fasea jokatzeko sailkatu da > 18



> **ESKUBALOIA**  
Verkol Aloñak 29-22 irabazi dio Villamedianari etxean > 19

> **SASKIBALOIA**  
Euskadiko txapelketa jokatuko dute Ointxeok > 21

## Bigarren jardunaldia uste bezain gogorra izan da

Zapatukoa denboraldiko bigarren jardunaldia izan zen ibarreko taldeendako

Aretxabaleko Arlutz taldeak ohorezko mailan jokatzen du, eta Arrasate San Andresek, berriz, maila bat beherago, lehenengo mailan

Zapatuan, Arrasateko taldeak gehiago merezi izan zuen Zuri Baltza liderraren aurka

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Ibarreko xake taldeek aurkari gogorrak izan dituzte aste bukeran. Hala, Aretxabaleko Arlutz taldeak, lehenengo jardunaldian ezustea eman eta gero, zapatuan bina berdintzea lortu zuen Pasaiako Batalla taldearen aurka.

**PARTIDU OREKATUA**

Aretxabaleko eta Pasaiako jokalariek partidu orekatua jokatu zuten. Lehenengo taulan, Fran Migelek berdinketa lortu zuen J.I. Alonsoren aurka. Andoni Migelek ere puntu erdia lortu zuen Carlos Cruz Lopezen aurka. Hirugarren taulan, berriz, Aitor Alcaidek galdu egin zuen Antxon Sanchezekin. Zapatuan, Alcaide izan zen punturik lortu ez zuen jokalaria bakarra; izan ere, Esteban Romerok irabazi egin zion J.M. Alonsori.

Berdinketarekin, Arlutzek sailkapeneko hirugarren tokia lortu du; guztira, bost puntu dituzte aretxabaletarrek eta, sailkapenean, bigarrenarekin berdinduta daude.

Datorren astean, Donostiako Gros taldearen aurka arituko dira nor baino nor gehiago Arlutzeko jokalaria. Alcaideren esanetan, "oso partidu zaila izango da". Izan ere, iaz, Donostiako taldea zortzigarren sailkatu zen Europako txapelketan.

**ARRASATEK AURKARI GOGORRA**

Bestalde, Arrasateko taldeak 1-3 galdu zuen Zuri Baltzaren aurka, etxean. "Ohorezko mailara igotzeko faboritoen artean dago-

en taldea da Zuri Baltza", adierazi digu Arrasate San Andres taldeko Josu Tornayk.

Neurketa orekatua izan zen Arrasaten jokatuakoa. Lehenengo bi tauletarako, jokalaria hobekak zituen Zuri Baltzak. Hala ere, Arrasate taldeko Luis Angel Ortega eta Josu Tornayk ondo jokatu zuten, eta berdintzea lortu zuten. Biek ala biek irabazteko abantaila izan zuten.

Hirugarren taulan, Txema Hernandok galdu egin zuen. Arrasateko jokalaria ez zen ondo aritu, eta aurkariari ez zion min handirik eman.

Ezustea, baina, azkeneko taulan etorri zen. Cayetano Rayok eskura izan zuen garaipena; Arrasatekoak abantaila handia hartu zion aurkariari, baina azkeneko bost minutuetan nahastu egin zen, eta galdu egin zuen. Norgehiagokan izan zuen abantaila gauzatzeko gai ez zen izan Rayo.

"Emaitza mardula bada ere, gehiago merezi izan genuen", adierazi digu Josu Tornayk. Ligan jokatu duten bi partiduak galdu dituzte arrasatearrek; hala, sailkapeneko bederatzigarren postuan daude, 2,5 punturekin. "Gure mailako bi talde indartsuenen aurka jokatu dugu dagoeneko; beraz, datozen jardunaldietan, gaur egun sailkapenean dugun egoera hobetzeko gai izango garela uste dugu", gaineratu digu Tornayk.

"Gure helburua liga amaieran igoera postuengatik borrokatzea izango da. Horretarako, baina, bazarik ez izatea garrantzitsua izango da", esan digu Tornayk.



**XAKE TAULA** Erregea ondo babestuta izatea garrantzitsua da xakean.

JOSETXO ARANTZABAL





## 2. ERREGIONAL MAILA

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Xabi Etxaniz, Gorka Arizmendiarieta, Kimetz Zabala, Rafa Prieto, Josu de Vega (entrenatzailea), David Peñalver (delegatua), Asier Castelos (entrena Beheko ilaran, ezkerretik hasita: Haritz Makarro, Asier Unzetabarrenetxea, Txomin de Vega, Mikel Salegi, Mikel Romenelli, Mikel Ormaetxea, Oxel Erostarbe, Iraitz Bolinaga, Asier



**INDUSTRIAS  
EVE, SA**





# tako Futbol Taldea



tzaillea), Asier Morales (laguntzaillea), Alex Abajo, Mikel Juaristi, Jon Irazabal eta Jokin Arantzabal.  
Arbulu, Ibai Igarza, Iker Zabaleta eta Haritz Gallastegi. Argazkian Arkaitz Arejolaleiba eta Iñigo Castelos falta dira.





PREFERENTE MAILA &gt; BIGARREN ITZULIKO LEHEN PARTIDUA

# Garaipen erosoia lortu zuen Mondrak Trintxerperen aurka

MONDRA

4-0

TRINTXERPE

**Mondra** > Ander, Loiti (Aranbarri, 69. min.), Illart (Ruben, 87. min.), Andoni, Laspiur, Zubikarai (Garmendia, 79. min.), Heriz (Alartzia, 72. min.), Keixi, Ekain (Muxi, 63. min.), Gotzon eta Murua.

**Trintxerpe** > Asier, Borja (Aritz, 65. min.), Iñigo, Daniel, Eñaut, Varela, Carlos (Agirre, 65. min.), Mikel (Gorka, 46. min.), Roberto, Caminaur (Imanol, 73. min.) eta Mankor (Iban, 46. min.).

**Epailea** > Ibañez jauna. Aginaga eta Abanda jaunak izan zituen laguntzaile.

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Aspaldiko partez, garaipen eroso eta lasaia lortu zuen Mondrak Trintxerperen aurkako partiduan. Zapatuan, Atxabalpen jokaturako norgehiagokako protagonistetako bat Jon Murua jokalaria izan zen. Denboraldi hasiera Durango taldean eman eta gero, orain Mondrako jokalaria da berriro ere.

MONDRA NAGUSI

Lehenengo zatian, Mondrak menderatu zuen partidua, baina apenas sortu zituen gol aukerak. Edozelan ere, etxeko taldeak abantaila hartu zuen markagailuan, Josu Zubikarai egindako gol bikainari esker. Hain zuzen, 28. minutuan hartu zuen Mondrak abantaila.

Atsedenera arteko minutuetan, Trintxerpe saiatu zen berdinetaren gola egiten; bada, ez zuen zortzerik izan. 42. minutuan, Trintxerpeko jokalaria Robertok falta erdiraketa ondo errematatu zuen,



OSPAKIZUNA Pozik daude argazkian, Josu Zubikarai eta Jon Loiti, Mondraren lehen gola ospatzen.

JOSETXO ARANTZABAL

baina Mondrako atezainak burukada ondo geratu zuen.

GOLAK, BIGARREN ZATIAN

Bigarren zatiko bigarren minutuan, Mondrak bigarren gola egin zuen. Muruak egindako jokaldian, Ekainek baloia erdiratu zuen, eta

Herizek baloia sareetara bidali zuen: 2-0. Bost minutu geroago, hirugarren gola egin zuen Igor Gordobilen taldeak. Keixik baloia primeran jaso zuen atezainaren gaintetik. Hala, hiru goleko errentarekin, norgehiagoka erabakita geratu zen etxekoen alde.

Laugarren gola egin aurretik, Mondrak gol aukera asko izan zituen; Muruak baloia langara bidali zuen eta Zubikaraien eta Muxiren erremateak atezainak geratu zituen.

Penalti bidez lortu zuen Laspiurrek azkeneko gola.



JOSETXO ARANTZABAL

## Mondra eta BTLs igoera fasean sartu dira

Ibarreko bi taldek jokatu dute emakumezkoen ligako igoera fasea: Mondrak eta Bergarako BTLs, hain zuzen. Bergarrek zapatuan irabaztea beharrezkoa zuten igoera faseko ligaxkan sartzeko, eta ez zuten hutsik egin: Salvatierrari 4-0 irabazi zioten Ipintzan jokaturako partiduan. Bestalde, igoera fasera sartzeko lortu ez duten Arizmendi eta Aloña Mendik Kopa txapelketa jokatu dute.

&gt; PREFERENTE MAILA

### Bigarren itzulia gaizki hasi du Aloñak Donostian, 2-1 galduta

Aloñak ez du ondo hasi ligako bigarren itzulia: atzo Donostian 2-1 galduta zuten oñatiarrek Berio-oren aurka.

Hasieratik jarri zitzairen partidua hankaz gora oñatiarrei: partiduko bosgarren minutuan egin zuen lehenengo gola Berio. Gero, Aloñak aukera onak izan zituen partidua berdintzeko; lehenengo, Jon Astigarrak baloia zutoinera bota zuen, eta ondoren, epaileak Haritz Garmendiak sartutako gola balio gabe utzi zuen.

Berdinketa bigarren zatiko 10. minutuan egin zuen Roberto Idigorasek. Golaren ondoren, Aloñak erritmoa jaitsi zuen, eta azkenean, falta baten ondoren, Berio bigarrena egin zuen. Gainera, epaileak Jokin Garai eta Henry Bazan egotzi zituen.

&gt; PREFERENTE MAILA

### Erraz menderatu zuen UDak Pasaiaren aurkako partidua (0-3)

Bigarren itzulia garaipenarekin hasi du Aretxabaletako taldeak. Zapatuan, arazo barik irabazi zuen Pasaiaren aurkako partidua.

UDako jokalaria Arkaitz Garaik falta jaurtiketa batean egin zuen lehen gola, 20. minutuan. Hamar minutu eta gero zabaldu zuen markagailuko errenta Felix Recioeren taldeak. Igor Arriagak baselinaz lortu zuen bigarrena, 30. minutuan. Hala, abantaila horrekin, erabakita geratu zen partidua.

Pasaiak baloi luzeak erabili zituen gol aukerak sortu nahian, baina ez zuen aukera garbirik egin. UDA izan zen kontraeraso baten hirugarren gola egin zuena. Arriaga izan zen golegilea.

Aste bukaeran, Mondraren aurka jokatu du UDak.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	41	18
2. Berio	31	18
3. Hernani	31	18
4. Anaitasuna	30	18
5. Mondra	30	18
6. UDA	27	18
7. Zestoa	27	18
8. Ordizia	26	18
9. Touring	24	18
10. Aloña Mendi	21	18
11. Hondarribia	21	18
12. Pasaia	20	18
13. Trintxerpe	20	18
14. Aurrera	19	18
15. Idiazabal	18	18
16. Mutriku	17	18
17. Martutene	16	18
18. Urola	15	18

### Emaitzak

Pasaia-UDA	0-3
Martutene-Hernani	1-1
Urola-Hondarribia	1-2
Mutriku-Ordizia	0-0
Touring-Aurrera	0-1
Anaitasuna-Zestoa	1-1
Berio-Aloña Mendi	2-1
Idiazabal-Zarautz	0-2
Mondra-Trintxerpe	4-0

### Hurrengoak

Hernani-Pasaia	
Hondarribi-Martutene	
Ordizia-Urola	
Aurrera-Mutriku	
Zestoa-Touring	
Aloña Mendi-Anaitasuna	
Zarautz-Berio	
Trintxerpe-Idiazabal	
UDA-Mondra	

### BESTELAKOAK

#### LEHENENGO ERREGIONALA

Pedrusco-Bergara	0-2
------------------	-----

#### BIGARREN ERREGIONALA

Soraluze-Mondra	2-0
UDA-BTLS	0-2
Elgeta-Gazteak	1-2
ZestoaB-Antzuola	1-3

#### EMAKUMEZKOAK

BTLS-Salvatierra	4-0
Mondra-Aurrera de Vitoria	0-2
Aloña Mendi	atsedena
Gasteiz Cup-Arizmendi UDA	3-0

#### OHOREZKO GAZTE MAILA (IGOERA)

UDA-Elgoibar	4-2
Mondra-Burumendi	3-3
Anaitasuna-Aloña Mendi	1-1

#### OHOREZKO GAZTEAK (KOPA ETA JAITSIERA)

Bergara-Urola	0-0
---------------	-----

#### LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK (IGOERA)

Antoniano-UDA Arizmendi	9-0
-------------------------	-----

#### OHOREZKO KADETEAK (IGOERA)

Vasconia-UDA Arizmendi	0-3
Kostkas-Bergara	1-4

#### OHOREZKO KADETEAK (KOPA ETA JAITSIERA)

Aloña Mendi-Allerru	5-0
Lagun Onak-Arrasate	2-0

#### OHOREZKO INFANTILAK (TXAPELUDUNEN FASEA)

UDA Arizmendi-Ordizia	1-1
-----------------------	-----

#### OHOREZKO INFANTILAK (KOPA)

Arrasate-Lagun Onak	4-0
Sto. Tomas Lizeoa-Aloña Mendi	3-1



EMAKUMEZKOEN EUSKADIKO GOREN MAILA > BOLADA ONEAN DAGO OÑATIKO TALDEA

# Lehenengo zatian borrokatu, eta bigarrenengan erabaki egin zuen Aloña

Etxeko taldea erasoan ondo aritu zen; barneratze onak egin zituzten eta Arteagaren indarrak baliatu ziren kanpoko jaurtiketarako



BARNERATZEAK Miren Zubeldiak lan ona egin zuen erasoan; 4 gol egin zituen.

JOSETXO ARANTZABAL

VERKOL ALOÑA

**29-22**

VILLAMEDIANA

**Verkol Aloña** > Zabaleta, Zuazotzegarraga, Goñi (3), Larrañaga (3), Altuna (1), Unamuno (4), Madariaga (1), Zubeldia (4), Sanchez (1), Elortza, Arteaga (7), Manuel (3) eta Olaberria (2).

**Villamediana** > Racalle, Martinez, Espartza (2), Saez, Aristizabal (4), Perez (1), Cabarso (9), Tomas, Cabarso (6), Benito eta Toledano.

**Golak** > 3-2, 6-4, 9-8, 11-10, 12-12, 14-13. Atsedena. 18-16, 21-18, 23-18, 24-20, 27-21, 29-22.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Aloñako neskek 29-22 irabazi zituen Logroñoeko Villamedianari atzo Zubikoan. Partidua zaila izan zen, batez ere lehenengo zatian. Hala ere, bigarren zatian markagailuan errenta polita hartu zuten oñatiarrek, eta bukaera arte eustea lortu zuten.

Lehenengo zatian, Aloña defentsan galduta egon zen. Neurketaren erritmoa hartzea kostatu

egin zitzaion Maitane Ruizek zuzentzen duen taldeari. Hala, Logroñoeko taldeak bi pibot jarri zituzten erasoan, eta etxeko defentsa zuzentzeko ez zuten arazorik izan. Hala ere, etxekoak beti aurretik izan ziren markagailuan.

ERASOAN, BIZKOR

Erasora ateratzerakoan, bizkor aritu ziren etxekoak. Baloia ondo mugitu zuten kantzaren alde batek bestera, eta jokaldi politak egin zituzten. Barneratzeetan, Olatz Manuel eta Miren Zubeldia

ondo aritu ziren. Kanpoko jaurtiketetan, berriz, Erika Arteagaren indarrak baliatu ziren etxekoak. Aloñan jokatzeko duen Bergarako jokalariek 7 gol egin zituzten atzo.

Azken minutuetan, Logroñoeko taldea kaskar aritu zen. Hala,

Aloña bali asko lapurtu zituzten defentsan, eta erasoan ateratzeko aukerak izan zituzten.

Aipatzeko izan zen atzo epai-leak egin zuen lana: Aloña zor-tzi penalti izan zituen aurka, eta alde, hiru besterik ez.

LEHENENGO TERRITORIALA > PARTIDUA ITURRIPEN

## Arrasatek bigarren zatian galdu zuen

Atsedenean 12-8 menderatzen zuten etxekoek; bada, Hegialdek buelta eman zion emaitzari

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Arrasateko lehenengo territorialako taldeak bigarren zatian bota zuen pikutara lehen ordu erdian egindako lana. Hegialde taldeak hobeto jokatu zuten une erabakigarrietan. Hortaz, garaipena legazpiarrek eskuratu zuten, 23-27ko emaitzarekin.

LEHEN ZATIAN, ONDO

Lehenengo zatian ondo jokatu zuen Arrasateko eskubaloia taldeak. 6-0ko partzialari esker, sei goleko tartea zabaldu zuten etxe-

koek markagailuan (8-2). Arrasatearrek errentari eusten jakin zuten atsedenera arte (12-8).

Bigarren zatian, gauzak erabat aldatu ziren. Legazpiarrek berehala berdindu zuten markagailua (12-12), eta abantaila ere hartu zuten (19-22). Etxeko jokalariek, gainera, txartel gorria ikusi zuten.

Horregatik guztiagatik, eta azken minutuetan erasoan gehiago asmatu zutelako, Legazpiko Hegialde Auto taldeak irabazi zuen Iturripeko norgehiagoka.



GOLEGILE ONENA Xabi Urtzelaik 6 gol lortu zituen atzo.

JOSETXO ARANTZABAL

### emaitzak

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO GOREN MAILA

Verkol Aloña-Villamediana 29-22

LEHENENGO TERRITORIALA

Bergara-Tolosa 34-26

Arrasate-Hegialde 23-27

GAZTE MUTILAK

Aloña Mendi-Usurbil 24-27

Bergara-La Salle -----

GAZTE NESKAK (UDABERRI SARIA)

Verkol Aloña atsedena

KADETE MUTILAK

Euskalduna-Gatz Museoa Jakion 26-22

Bidasoa Irun-Aloña Mendi 33-38

KADETE NESKAK

(EUSKADIKO TXAPELKETA)

Verkol Aloña-Leizaran 25-12

KADETE NESKAK (UDABERRI SARIA)

Arrasate atsedena



GIPUZKOAKO TXAPELKETA &gt; FINALERDIA, ITZULERAKO PARTIDUA

# Mugarri Alkesa, Euskadiko txapelketan

Mugarri Alkesako gazte mailako taldeak ez zuen hutsik egin denboraldiko partidu nagusian, eta merezitako saria jaso dute

MUGARRI ALKESA

## 70-54

LASAO ALTZARIAK

**Mugarri Alkesa** > Ander (6), Imanol (20), Mikel, Borja (3), Beñat (14), Ugaitz, Antxon (18), Txomin, Aitor (9) eta Sergio.

**Lasao Altzariak** > Gartzia, Arellano, Ibartzabal (5), Artola, Urbizu (12), Aznal (2), Arregi (4), Eizaguirre (13), Agirre, Azkue (9), Alberdi eta Etxaniz (9).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 14-12. Bigarren laurdena: 25-21. Hirugarren laurdena: 51-37. Laugarren laurdena: 70-54.

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Azpeitian jokatu zuten joaneko partidutik ekarritako puntu bateko desabantaila ez zen oztopo izan Mugarri Alkesako gazte mailako taldearendako, eta atzo mendean hartu zuen Lasao taldea Iturripen.

Hala, Euskadiko txapelketa jokatu dute. Bizkaiko ligako bi taldek, Arabako ligako beste bi tal-

dek eta Gipuzkoako ligako Easo A-k eta Mugarri Alkesak jokatu dute Euskadiko txapelketa.

**HASIERA ESKASA**

Partiduak zuen garrantziagatik edo, bi taldeak nahiko urduri atara ziren kantzara. Hala, kosta egin zitzairen lehen puntuak saskiratzea. Bi taldeek huts gehiegi egin zituzten erasoko jokaldietan. Horregatik guztiagatik, puntu gutxi lortu zituzten lehen bi laurdenetan.

Lehenengo laurdenean hutsak egin arren, Mugarri Alkesa izan zen markagailuan errenta izan zuena. Bi tarte haietan, gehienez ere, zortzi puntuko abantaila izan zuten arrasatearrek.

Atsedenean, Mugarri Alkesa zen aurretik markagailuan (25-21).

**HIRUGARREN LAURDENA**

Atzoko norgehiagoka hirugarren laurdenean erabaki zen etxeko alde. Atsedenean, erritmoa igotzeko agindua jaso zuten Mugarri Alkesako jokalariek. Hala, markagailuko errenta handitzen joan ziren poliki-poliki.



LEHIA Taula azpian lehia gogorra izan zuten bi taldeek.

JOSETXO ARANTZABAL

Laugarren laurdenean hasierara, 14 puntuko errentarekin iritsi ziren arrasatearrek. Tarte hartan, ez ziren urduri jarri eta, zaleen animuekin, garaipena erdietsi zuten.

Beste behin, zaleek ez zuten hutsik egin. Partiduak zuen garrantzia jabetuta, ordutegi aproposena ez izan arren, Iturripe kiroldegiko harmailak bete egin ziren.

**KADETEAK EZINEAN**

Ointxe! saskibalo elkarteko kadete mailako taldeak ere aste bukeran jokatu du Gipuzkoako txapelketako itzulerako partidua. Iturripen 42-91 galdu ondoren, aukera gutxi zituen Arrasateko taldeak aurrera egiteko.

Donostian jokatutako norgehiagoka ere galdu egin zuten kadeteek (99-57). Beste batean izan beharko da.

EMAKUMEZKO SENIORRAK &gt; LEHEN ITZULIKO AZKEN PARTIDUA JOKATU DUTE

# Lehenengo itzulia hirugarren postuan amaitu dute

Datorren astean, Oiorsoren aurka arituko dira Intxaurtxuetan

A.G. &gt; ESKORIATZA

Eskoriatzako senior taldeak sailkapenean maila bat igotzea lortu du, atzo, etxean, Cafes Aitona taldeari 50-45 irabazita.

**ERRITMOA HARTZEA KOSTA**

Cafes Aitona eta Eskoriatza hirugarren eta laugarren postuan zeuden, hurrenez hurren. Hori dela eta, partidu gogorra izango zela aurreikusita zegoen. Eta hala izan

zen, partidua berdinduta bukatu eta luzapena jokatu behar izan zuten-eta lehia erabakitzeko.

Hasierako minutuetan, partiduaren erritmoa hartzea kosta egin zitzaion etxeko taldeari. Baina, hala ere, bai lehenengo laurdenean amaieran eta bai atsedenean, aurretik ziren markagailuan etxekoak. Ondorengoak izan ziren laurdenetako partzialak: 9-6, 12-8, 11-19 eta 8-7.

**BI DEFENSA MOTA**

Eskoriatzako taldea defentsan ondo aritu zen; hasieran, banakako defentsa egin zuten, eta gero, aurkaria nahastu guran, zonakako defentsa egiten hasi ziren.



LEHIA GOGORRA Maite Usabiagak gogor egin zuen lana atzo.

JOSETXO ARANTZABAL

Erasoan, berriz, galduta ibili ziren eskoriatzarrak. Baloia mugituzterako orduan, motel aritu ziren eta, ondorioz, huts asko egin zituzten. Aurkaria ahuldu guran, kantzara gutxira zabaldu zuten presioa

etxekoek. Hala, baloi asko lapurtu zituzten, eta erasoan ateratzeko aukera politak izan zituzten.

Datorren astean, bigarren itzulia hasiko dute: Oiorsoren aurka neurtuko dituzte indarrak etxean.

LEHENENGO MAILA

## Lehenengo garaipena, poltsikora

MUGARRI ALKESA

# 80-64

TABIRAKO

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

EBA ligarako bidea garaipenarekin hasi zuen Mugarri Alkesak. Durangoko Tabirakoren aurka hasi zuen zapatuan Gorka Zurututzaren taldeak bigarren fasea.

**HASIERA PAREKATU**

Lehenengo laurdena izan zen norgehiagokako tarterik parekatuena. Tarte horretan izan zuten bizkaitarrek partiduko abantaila bakarra (7-9). Mugarri Alkesak bost puntuko errenta zuen lehen tartearen amaieran: 22-17.

Bigarren laurdenean, etxeko taldearen abantaila handitzen joan zen. Hala, 17 puntuko abantailarekin iritsi zen atsedenera: 48-31.

Azkeneko bi laurdenak oso antzekoak izan ziren. Mugarri Alkesak, hiruko jaurtiketei esker, tartea askoz gehiago zabaldu zuen markagailuan. Gorka Zurututzaren taldeak hiru puntuko 14 saskiratze lortu zituen. Gehienez ere, 27 puntuko errenta izan zuen azken tartearen hasieran: 71-44.

Edozelan ere, Tabirakok, desabantaila murriztuz, markagailua itxuratu zuen partidu amaieran.

emaitzak

MAILAZ MAILA

**LEHENENGO MAILA**

Mugarri Alkesa-Tabirako Baque 80-64

**SENIOR MUTILAK**

Ainhoa Taberna-Candy 74-85

Aloña Mendi-Ordizia 74-63

**SENIOR NESKAK**

Internacional-Aloña Mendi 20-00

Eskoriatza-Cafes Aitona 50-45

**GAZTE MUTILAK (IGOERA)**

Mugarri Alkesa-Lasao Altzariak 70-54

**GAZTE MUTILAK**

Internacional-Aloña Mendi 59-37

**GAZTE NESKAK**

Goierri-Eskoriatza 16-79

Kortazar Txirrita-Lazkao Txiki 49-26

**KADETE MUTILAK (IGOERA)**

Easo A-Ford Mugarri 99-57

**KADETE MUTILAK**

Aloña Mendi-Billabona 77-27

Bergara-Zarautz 76-29

Construcciones Alkesa atsedena



OÑATI

# Lehian aurkariak izan arren, ondo konpontzen dira Oñatiko gaztetxoak

**11. JARDUNALDIA** Zapatu goizean, Olaiturriko kantxan elkartu ziren laugarren mailako mutikoak denboraldiko 11. jardunaldia jokatzeko

**ARETO FUTBOLA** Oraingo honetan, areto futboleko partiduak jokatu zituzten; kantxa guztian aritu ziren, luzetara, nor baino nor gehiago

**HOTZA** Zapatu goizean egiten zuen hotzari aurre egiteko, gaztetxoek gogor egin behar izan zuten lana. Emaitza, baina, gutxienekoa izaten da

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Zapatu goizeko hotzari aurre eginenez, hamaika lagun elkartu zen Olaiturriko kantxan, Oñatiko laugarren mailako mutikoen partiduak ikustera. Batzuk partiduak jokatzera hurbildu ziren, baina beste hainbat, ikusle gisa: gaztetxoek partidua irabazteko beharrezkoak zituzten animuak ematera, alegia.

Oñatiko eskola kiroleko arduradunek hiru kirol jarduerara antolatatu zituzten zapaturako: Zubikoako kiroldegian, eskubaloian eta saskibaloian aritu ziren, eta Olaiturriko kantxan, berriz, areto futbolekoan.



**Andarto.** Unaik, Xabierrek, Beñatek, Anderrek, Mikel N.-k, Mikel A.-k, Jonek eta Asierrek osatzen dute Andarto taldea.



**Udala.** Haritz, Beñat, Mikel, Peio, Matias eta Asier dira Udala taldeko jokalariek.

**HELBURUA, ONDO PASATZEA**

Areto futboleko jokatzeko aritu zirenen partiduak ikustera joan ginen Olaiturriko kantxan. Lehenengo, Udala eta Andarto taldeko mutikoak aritu ziren, nor baino nor gehiago. Eta ondoren, Akaitzek eta Kataberak neurtu zituzten indarrak.

Partidu politak izan ziren, kiroltasun handikoak. Izan ere, euren artean oso harreman ona dutela esan ziguten gaztetxoek: "Noizean behin txantxetan aritu arren, ondo konpontzen gara eta gure artean ez da liskarrik sortzen", azaldu ziguten jokalariek. "Batuetan, momentuko haserrealdiak izaten ditugu baina, behin partidua amaitzen denean, elkarri eskua eman eta lagunak izaten jarraitzen dugu", gaineratu ziguten. Gaztetxo hauendako garrantzitsuenak lagun artean ondo pasatzea izaten da.



**Akaitz.** Josek, Enekok, Markelek, Iñigok, Aitorrek, Iñakik eta Josuk jokatu zuten zapatuan Akaitz taldearekin.



**Katabera.** Martin, Iñigo, Oier, Ange eta Jon aritu ziren Katabera taldean zapatuan Olaiturriko kantxan.

AURKARIEKIN ONDO KONPONTZEN DIRA GAZTETXOAK?



**Ander, Beñat eta Jon Ander**  
Andarto eta Duru



**Mikel A., Mikel N. eta Iñigo**  
Andarto eta Degurixa




**Jon, Oier eta Iñigo**  
Katabera

"Aurkariarekin beti konpondu izan gara ondo. Hala ere, noizean behin haserretu egiten gara, partiduaren gora beheren arabera, baina ez dira haserrealdi handiak izaten. Gehienbat, txantxak egiten ditugu, baina haserretzera iritsi gabe", azaldu digute partidu amaieran Andarto eta Duru taldeko mutikoek. Partidu amaieran, elkarri eskua eman eta lagunak izaten jarraitzen dute: "Bai, denak ezagunak eta lagunak gara".

"Bai, aurkariarekin ondo konpontzen gara. Denak gara ezagunak eta, aurkako taldean aritu arren, lagunak gara. Batuetan, gure buruarekin haserretzen gara, baina ez beste taldekoekin. Arauak errespetatzen ditugu, eta ondo jokatzeko saiatzen gara. Orain arte, jokatuak ia partidu guztiak galdu egin ditugu; hala ere, ez gara inoiz beste taldeko jokalariekin haserretu. Lagunak gara eta horrela jarraituko dugu".

"Bai, ondo konpontzen gara baina, hala ere, batuetan haserretu izan gara; epailearen erabakiren batekin ados egon ez garenean, edo jokoaren beste gertaera batengatik. Hala ere, momentuko haserrealdiak izaten dira, behin partidua amaitzen denean denok lagunak izaten jarraitzen dugu-eta. Talde ezberdinetan egon arren, lagunak gara, eta elkarrekin gustura ibiltzen gara", adierazi digute Katabera taldeko kideek.





**Laster  
GIDA 2007  
zure etxean!**

Gida osatuna  
erabilgarriena eta berriena.

**Zure herriko  
denda eta enpresen  
telefonoen gida.**

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak





> **3.60 ARETOA**  
Nazioarteko musikari ezagunak etorriko dira Arrasatera > 24



> **MENTALISMOA**  
Anthony Blake mentalista ikusteko sarrerak salgai daude > 26

> **'HARRISTI'**  
Aste bukaera Arrasaten aski ezaguna den *Harristi*-rekin eman dugu. Bere zaletasunak kontatu dizkigu: poteatzea, lagunekin bazkaltzea, futbola... > 27



Kantuzaletasuna berreskuratu nahian dabil Arrasateko Portaloi elkarteak

Tabernaz taberna ibiltzen dira euskal kantutegiari hautsa kentzen

Atzo, domeka, egin zuten elkarrekin hiru hilean behin egiten duten entsegua

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Donostian abiatutako antzeko ekimen baten "inbidiaz", Arrasaten ere antzeko zer edo zer egin zitekeela otu zitzaizkien Portaloiko taldekoei. Helburu argia daukate: euskaldunen balizko kantuzaletasuna atzera iratzartu eta, guztiaren gainera, lagun artean abesten gozatzea. Izpiritu horrekin, dagoeneko hiru bat urte daroa Portaloiko elkarteak ezta rriak berotu eta herriko txoko, taberna eta ospakizunetan euskal kantutegiari hautsa kentzen. Atzo bertan, hiru hilabeteko egiten duten moduan, entsegua egin zuten AEDko lokaletan.

Lehen saioetan, Hotel Mondragonen batzen ziren Itziar Zamoraren -Donostiako taldekoa- gidaritzapean. Aspalditik zebiltzan Arrasateko hainbat koadrilatako kideak ekintza kulturalak antolatzeke gogoarekin, eta kantu taldearekin hasi ziren. Salva Dalmau da elkarteke kideetako bat eta, azaltzen duenez, urte hartan irten ziren lehenengo aldiz kalera abestera. San Juan gauean izan zen, eta dragoi-jana aukeratu zuten jendaurreko bataiorako. Hortik aurrera, Gabonetan eta egun berezietan irteten hasi ziren, eta gaur egun, hilean behin, egubakoitzetan, irteten saiatzen dira txikiteo orduan tabernaz taberna kantuan egitera.

**LEHEN URRATSAK**

Dalmauk aipatzen duenaren arabera, Arrasate eta Donostiako moduko talde asko jaio dira azken sei-zazpi urteetan, eta dagoeneko hiriburua gehienetan badago bat. Arrasatekoa oraindik lehen urrasetan ibilita ere, animu handiz dabilzala azaltzen du Dalmauk: "Bai etxeetan zein kalean kanta-

# Kanturako grina berpiztu nahian



ENTSEGUA Atzo elkartu ziren kantuzaleak AEDren lokaletan.

JOSETXO ARANTZABAL

tzeko ohitura on hura galdu egin da", dio, "eta euskaldunak beti izan gara kantuzaleak eta berreskuratu beharreko zerbait da". Hala, erraza ez dela aitortzen du Dalmauk, baina aipatzen du elkarte badiuztela makina bat asmo, oraindik zehazteko daudenak: koadrila arteko txapelketak, kantutegia, ekitaldiak... Barrezka,

zera dio: "Askotan ez da izaten erraza, egubakoitz arratsaldetan jendea lanetik lasaitzera irteten delako kalera eta, kantuan hasten garenean, beti ez digute hain aurpegi onez begiratzen". Hala ere, orokorrean, jendeak gustura hartzen dituela dio: "Apurka-apurka joango gara, lan handia dago eta hasi besterik ez gara egin."

**KANTUTEGIA OSATU GURAN**

Errepertorioari dagokionez, kanta guztiak euskaldunak dira, gehienak ezagunak eta, tartean, habanera bat edo beste ere badaukate. Hain zuzen ere, aurten kantutegi bat argitaratu eta herrian zabaldu gura dute, tabernetan, elkarteetan, etxeetan... kantuzaletasuna pizteko.

Portaloiko elkarteek gura duenari zabaltzen dizkiote atea. Hala, atzo moduan, hiru hilean behin domeka baten elkartzen dira AEDko egoitzan: "Lehenik eta behin, ondo pasatu, lagunak egin eta ohitura on hau erreperatzea gura duten guztiei egiten diegu gonbitea", dio Dalmauk amaitzeko.



MAGIA &gt; ANTHONY BLAKE ETA RENÉ LAVAND, OTSAILEAN ESPALIOAN

# Salgai daude dagoeneko Anthony Blake mentalistaren saiorako sarrerak

Saioa otsailaren 10ean izango da, eta ez 9an, eskuorrietan iragarri moduan

Otsailean ere René Lavand kartomago mainguak egingo du ikuskizuna

JON BEREZIBAR &gt; ELGETA

Otsailaren 10ean egingo du Anthony Blake mentalista espainiarrrak magia saioa Espaloia kafe antzokian. Eskuorrietan saioa hilaren 9rako iragarrita badago ere, hurrengoko egunera, zapatara, aldatu dute mentalista ezagunaren saioa. Sarrerak dagoeneko salgai daude Espaloian bertan.

Espaloian egongo den bigarren aldia izango da datorren otsailera, lehen Magia Astean parte hartu zuen-eta hark, orain bi urte. Otsailean ere René Lavand magoa egongo da Elgetan.

GOGAMENAREN MAGOA

Munduko mentalista onenen artean dago Anthony Blake, eta telebista eta hedabideetan oso ezagun egin da. Mentalista edo, hark

nahiago duen moduan, "gogamenaren magoa" da Blake, eta ikamika bat baino gehiago piztu dute haren trikimailuek. Hala, oso sonatua izan zen 2003an loteriako sari potoloa iragartzeko saiakera; asmatu, asmatu zuen, baina, zenbait hedabidetan, hark tranpa egin zuela argitaratu zuten, mahai azpian "gizon txiki bat" gordeta izan zuela esanez. Polemikak polemika, sona handiko mentalista da Blake, eta haren ikuskizunek zeresan handia eragin ohi dute ikusleentzatean.

MAGIA GEHIAGO OTSAILEAN

Magiarekin, beste hitzordu bat ere egongo da Espaloian otsailaren 17an. René Lavand magoa etorriko da kartekin jokoak egitera. Ezkerreko eskuarekin egiten du



ANTHONY BLAKE 2005eko Magia Astean egindako saioan.

GOIENKARIA

lan bakarrik Lavandek, eskumakoa istripu baten galdu zuen eta, eta lentedigitazioaren maisuetako bat da; hau da, ezin motelago egi-

ten ditu karta-jokoak, ilusioa muturreraino eraman arte. *Ezin da motelago egin* da hark beti erabiltzen duen leloa.

## Polemika eta ilusioa erabiltzen dituen 'mago' ospetsua

Aski ezaguna da Anthony Blake mentalista espainiarra, telebistan egindako ikuskizunengatik. Gogamenarekin egiten ditu hark jokoak, eta Elgetan egingo duen saioan haren ibilbideko ilusiorik onenak bildu ditu. Eszenaratze zainduarekin eta ikusleak zur eta lur uzteko helburu argiarekin, 20 urtetan egindako lanik onenak bildu ditu Blakek haren azken ikuskizunean. Intuizioa, ilusioa eta gogamenaren ahalmenak erabiliko ditu mentalista ospetsuak, baina ez magia, hitz horretatik ihes egiten du-eta Blakek. Hark dioenez, "ez dago logikarik, guztia gogamenak egiten du".

Otsailean ere, Inma Serrano kantaria eta Edurne Erañaren margolanen erakusketa egongo dira Espaloian.

ANTZERKIA &gt; DOAN JAITS DAITEKE ENTSEGU BATEN GRABAZIOA

## 'Actto para la Noche Buena' Euskomediako web gunean eskegi dute Doke taldekoek

Antzezlana ikusi ahal izateko bide bakarra izango da oraingoz, datorren abendura arte ez dutelako saiorik egiteko asmorik

J.B. &gt; ARAMAIO

Oholtza gainean, oraingoz, saiorik egingo ez duten arren, Aramaioko Doke antzerki taldeak sarean eskegi du *Actto para la Noche Buena* antzezlana, nahi duenak jaisteko aukera izan dezan. Honako hau da helbidea: [www.euskomedia.org/MusicGaler/05\\_actto\\_nb.ram](http://www.euskomedia.org/MusicGaler/05_actto_nb.ram). Doan jaits daiteke Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioaren webgunetik.

ERANTZUN ONA

Hego Euskal Herrian euskaraz idatzitako lehenengo antzezlana da *Actto para la Noche Buena*, eta Doke taldeak abenduaren 16an, 17an (Arrasaten) eta 23an (Aramaio) taularatu zuen lana. Egindako saio bat bidez grabatu zuten. Internet bidez ikusgai ipini dutena, hala ere, abenduaren 15ean egindako entsegu orokorraren grabazioa da. Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioaren



DOKE ANTZERKI TALDEA Abenduan antzeztu zuten lana.

GOIENKARIA

webgunean jarri dute bideoa, nahi dutenek antzezlana ikus dezaten. Oraingoz, eta errepikatze eskaintza bat baino gehiago jaso badute ere, ez dute Pedro Inazio Barrutia aramaioarrak XVIII.

mendean idatzitako lana antzeztuko. Hala ere, datorren abenduan bira txiki bat egingo dute, eta Araba eta Gipuzkoako hainbat lekutan saioa egiteko asmoa daukate.



ZAFARI PROJECT Espaloiko orain bi urteko saioan.

GOIENKARIA

JAZZA &gt; ERRABAL ZIGILUAREN LEHIAKETA

## Talde berrien lehiaketan izenematea zabalik dago

Martxo hasieran hasiko dira lehiaketako zuzenekoekin Elgetako kafe antzokian

J.B. &gt; ELGETA

Zabalik dago Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak antolatutako Jazz Talde Berrien lehiaketaren bigarren edizioko izenemate epea. Otsailaren 8ra arte egongo da zabalik inskripzioa, eta zuzeneko emanaldiak martxo hasieran hasiko dira, aurreko edizioan bezala Elgetako Espaloian. Oinarriak diskoetxe webgunean daude, <http://www.hotsak.com/Errabal/baseak.pdf> helbidean. Era berean, Errabal zigiluak, jazz eta musika beltza

sustatzeko Hotsak etxeak sortutako azpizigiluak, lanean jarraitzen du.

SEI DISKO IAZ

2006an sei disko berri kaleratu zituen Errabalek. Hiru urte dira dagoeneko jazz-zale batzuek Errabal azpizigilua abiatu zutenetik, eta ordutik dabilta disko eta talde berriak kaleratzen. Debajazz jaialdi ibiltaria ere antolatzen dute bi urtean behin, eta iaz izan genituen Espaloian ere bertako kontzertuak.



Irtenbide bakar eta berritzailea eskaintzen dizugu,  
ondo, lasai eta eroso bizi zaitezten.

Etxea bete laguntza daukazu.

pentsioago<sup>+</sup>

Hileroko zure pentsioa osatzeko premian al zaude, estualdi ekonomikorik ez izateko? Edo ustekabeko gasturen bati aurre egin behar-eta diru-sarrera bereziren baten beharrea? Edo etxean norbaiten laguntza behar zenukeela uste duzu?...

Bada, zatoz guregana. Merkatuan beste inon ez bezalako produktua daukagu-eta zuretzat: **pentsioago<sup>+</sup>**

Zure etxearen kontura, diru-sarrerak hobetzen lagunduko dizun **irtenbide berria** da, bizitza osoan lasai eta eroso bizi zaitezten; inoren mende egon gabe.

**Bizi zaren artean ezer ere ordaindu beharrik ez, eta zeure etxebizitzaren jabetza osoari eutsiz.**

Horra zure bizi-kalitatea hobetzeko ideia aparta.



JAIALDIA &gt; KANUTO DEUNA EGUNEKO KONTZERTUAK

# Gurtza dantzagarria egin zioten zapatuan Kanuto Deunari Aretxabaletan

La Banda del Abuelo, Inalectrik eta THC taldeek jo zuten zapatuan Aretxabaletan. Giroa paregabea izan zen hasieratik. Dantzan amaitu zuten guztiek

JOKIN MUNARRIZ &gt; ARETXABALETA

Jaia dantzan amaitu zuten Kanuto Deunaren gurtzaileek zapatuan Aretxabaletan. Intsentsu keen artean baino gehiago, *maria* bedeinkatuaren laino artean egin zioten gurtza musikala La Banda del Abuelo, Inalectrik eta THC taldeek. Giro polita, jendetza eta irribarreak, kontzertuek amaiera bikaina eman zioten jaiari leiho fabrika zaharrean.

Arrasateko La Banda del Abuelo talde sailkagaitzak hasi zuen jaialdia. Punka, heavya, rock-and-rola... antza, denetarik du gustuko aitiak eta, didjeridu eta perkusioarekin, ez zuten larregi behar izan aretoan berehala berotzeko.

Inalectrik hirukotea irten zen hurrengo, festa luzatu nahian. Bi zati izan zituen emanaldiak: elektrikoa eta akustikoa. Lehen zatian, ondo irten zen hirukotea, abesti sortari alderik mamitsuena atereaz. Tamalez, abesti akustikoei



LA BANDA DEL ABUELO Arrasatearrek ireki zuten jaialdia.

JOSETXO ARANTZABAL

txanda iritsi zitzaieanean, soinu arazoez zertxobait okertu zuten kontzertua.

Animuak bertan behera ez geratzeko, baina, THCko iruinda-

rrak egur ederra eman zuten. Oinarri elektronikoen baina ezertxo ere falta ez zitzaion bandarekin -gitarra, baxu, haize, perkusio...- Kanuto martiri bera ere dantzan

ipini zuten nafarrek. Soinu aberatsa, nahasketen zalea eta erritmo bizikoa egiten dute, eta giroa ezin hobe izan zen. Gauari amaiera dantzagarria ipini zioten, eta

bertan zeudenek ere ederto esker-tu zuten haien emanaldia. Dantzan eta giro onean esan zioten agur, beraz, Kanuto Deunaren ospakizun jaialdiari.

KONTZERTUAK &gt; 3.60 ARETOKOEK PREST DUTE AGENDA

## Rocka ardatz The Dictatorseko kide ohiekin otsailean

The Thunderbolts taldeak, The Dictators eta Manowar-eko kide ohiek osatua, joko du 2an

JON BEREZIBAR &gt; ARRASATE

Rock-and-roll taldeek egurra ematen jarraituko dute datozen hila-beteetan ere Arrasateko 3.60 aretoan. Urtarrilari agur esateko, baina, stonerraren indar tematia- ren bi euskal erakusle aukeratu dituzte: gureko Sharon Stoner eta *Stereosaurus* disko berria aurkeztuko duen Neubat gasteiztarra.

Otsaileko lehen egubakoitzean, Thunderbolts taldeak joko du. J.P. eta Ross *the Boss*, The Dictators eta Manowar taldeetan esku hartutakoek, eta Sex Museumeko Fernando Pardo eta Miguelek osatzen dute, besteak beste, The Thunderbolts rock proiektu berria.

Thin Lizzy mitikoen bertsioak egiteko batu eta taldea sortu zuten aipatutakoek 2005ean. Berako Sixty Sexers taldea izango dute lagun otsailaren 2ko gauean.

UDABERRIRA ARTEKOAK

Otsailean ere, Nuevo Catecismo Catolico, Lobo Electrico eta Arrasateko Los Cretinos taldeek joko dute 3.60an.

Udaberrirako hitzorduak aurreratzeko moduan dago aretoa, azken orduko aldaketarik ez bada. Hala, Athom Rumbakoak apirillean egongo dira jotzen, Royal Canal taldearekin. Des-kontrol-koek ere jaialdia egingo dute.

ROSS 'THE BOSS' The Thunderbolts da Ross *The Boss*-en talde berria.

GOIENKARIA



ASTEBURUA...

## Iñaki Gurrutxaga *Harristi*-rekin



IRATI AGIRREAZALDEGI

# Lagunekin, jai giroan eta lanean

Tabernako eta elkarte-ko giroa ditu gustuko *Harristi*-k. Lagunekin poteoan edo bazkari-tan elkartzen da aste bukaeretan

Futbol zalea da Iñaki Gurrutxaga; Mondrako partiduetan taldea animatzera joaten da eta Realaren partiduak ere ikusten ditu

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE  
Saltsa denetako perrexila da Iñaki Gurrutxaga *Harristi*. Eskoriatzan bizi da, baina Arrasaten ematen du denbora gehien. Asteburuak ere Arrasaten pasatzen ditu, "gutxitan joaten naiz kanpora", esan digu. Irati tabernan, *Harristi*-ren "bigarren etxean", egin dugu hitzordua asteburuari ekiteko.

Arratsaldeko presoen aldeko agerraldira joan aurretik, bere asteburuaren berri eman digu elkartearen. "Elkarteko arduraduna naiz eta biltegia betetzen dut".

### TABERNA ETA LAGUN GIROA

Astea lanean pasatuta, egubakoitz eguerdian hartzen du jai *Harristi*-k. "Ez dirudien arren, egubakoitz arratsaldeetan jai izateak asteburu luza du", esan digu. Arrasatera iritsi eta lagunekin poteoa egiten du. "Saltsa askotan sartuta nago eta jende asko ezagutzen dut. Edozeinekin geratzen naiz berriketan eta afalordura arte ibiltzen gara tabernetan".

Poteoaren ostean, etxetik kanpo afaltzen du egubakoitzetan Iñaki: "Ogitarteko bat edo menuren bat tabernaren batean afaldu eta poteoan jarraitzen dugu goizaldeko laurak ingurura arte".

Berandu oheratzea ez da traba izaten *Harristi*-rendako, eta zapatuan goiz altxatzen da. "Etxeko erosketak egiten ditut, eta baita etxean lagundu ere". Etxea ahalik eta txukunen utzi eta ia zapatu gehienetan bazkaria kanpoan egiten du, elkartearen: "Zapatuetan beti izaten da zerbait. Bazkaria ez bada, afaria, eta bestela, aitzakia asmatzen dugu elkartzeko. Gehienetan, ni izaten naiz sukaldari. Ohiko gauzak gertatzen

ditut: hanburesak tomatearekin, txipiroiak, solomoa... betiere pila bat".

Bazkari berezirik ezean, zapatu arratsaldeetan Atxabalpen ikusiko dugu *Harristi* Mondra animatzen. Kanpoan jokatzeko partiduetara ere joaten da inoiz.

Iluntze partean, poteoa egiten dute *Harristi*-k eta lagunek: "Arrasaten ibiltzen gara, betiko tabernetan. Askotariko jendea elkartzen garenez, musika mota

ezberdinak ditugu gustuko eta taberne aldatzeko aukera ematen dute".

Erretiratzeko ez du presarik izaten Iñakik, eta goizaldeko seiak aldera arte ibiltzen da. Eskoriatzara itzultzeko nola egiten duen galdetuta, zera esan digu: "Autoz joaten naiz, eta inoiz alkoholemia kontroletan geratu banaute ere, ez dut sekula positibo eman".

Herritik gutxi irten arren, sagardotegi denboraldian beti egiten du buelta sagardoaren habiara: "Koadrilakook urtarileko azken zapatuan joango gara, Herri-naira, Olaizola sagardotegira".

### DOMEKETAN, LASAI

Domekak lasaiagoak izaten dira *Harristi*-rendako: "Berandu jaiki eta familiakoekin bazkaldu ondoren, Arrasatera joaten naiz. Hamabost egunean behin, bi lagunekin elkartzen naiz presoei eskutitzak idazteko". Domeketako poteoa lasaiagoa izaten dela esan digu, eta futbolarekin tartekatzen dutela: "Ez naiz zale sutsu horietakoa, baina Realaren partidua parean tokatuz gero, ikusten dut".

*Harristi*-rekin topo egin nahi baduzue, beraz, Arrasaten taberna giroan izango duzue bere berri.

## Herriko talde askotan lanean; edozer antolatze gertu, behar den unean

Urte sasoiaren arabera herriko ekitaldi eta jaiak antolatze lanetan ibiltzen da *Harristi*. "Orain, batzorde bat osatzen dihardugu koadrila eta tabernarien artean Aratuste zaturako zerbait antolatze". Aste Santuan ez da urrutira joaten oportetara. "Eskiatzeko plana egin izan dut batzuetan, eta bestela, Aberrri egunera joaten naiz". Hainbeste taldeetako partaide izanik, San Juan jaietako antolakuntza lanak datoz ondoren. "Dantza gustuko dudanez, Errementari dantzan hartzen dut parte San Juanetan".

Arrasaten giroa badagoela esan digu, baina gauza batek kezkatzen du: "Autobidea, tren eta egin nahi duten merkataritza zentroarekin, beldur naiz ez ote den giro dena galduko. Hori gerta ez dadin, Arrasaten dugun aberastasuna aprobetxatu egin behar da. Kultura eta kirol talde asko dago herrian, eta gauzak egiteko gogoz; beraz, eutsi egin behar diogu".



## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** Beheko auzoan, 4. solairua. Bi logela, egongela, bainugela eta ganbara ditu. Eguzkitsua eta berriua. 639 58 13 83.

**Antzuola.** Eguzki auzoan. Hiru logela, bi komun, igogailua. Eguzkitsua. 620 31 64 93.

**Arrasate.** Erguin kalean. Egon-gela, sukaldia, bi logela, bainua, berogailua. Oso eguzkitsua. 649 70 33 83.

**Arrasate.** Bizkaia etorbidean. 3 logela, bi bainu, trasteleku. 670 42 07 98.

**Arrasate.** Erdigunean. Hiru logela ditu eta jantzitza dago; igogailua ere badu. 943 79 60 88.

**Bergara.** 57 m<sup>2</sup>. Erdialdean. 2 logela, igogailua, trasteleku. 649 63 11 74.

**Bergara.** Baserria salgai Angiozarren. Prezio interesgarria. 626 35 60 89.

**Bergara.** Labegarrietan. Erabat berriua. 47 m<sup>2</sup>. 190.000 euro. 635 71 04 55.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldia. Dena kanpoaldera, ikuspegi onekin. Solairu altua, igogailuarekin. 620 18 59 06.

**Bergara.** San Pedro kalean. 110 metro koadro gehi ganbara. Guztiz berriua dago, estreinatze. 943 76 72 01.

**Bergara.** Simon Arrieta kalean, 80 m<sup>2</sup> etxea salgai. Berriua. 2 logela ditu, komuna, egongela, sukaldia, jangela eta balkoi ederra. Banakako berogailua du, gas naturala eta baita igogailua ere. Garajea aukeran. Prezioa: 45 milioi. 664 73 49 60.

**Bergara.** Zubiaurren. Dena berriua. Bizitzera sartzeko moduan. 620 62 83 41.

**Bergara.** Zubieta kalean. Eguzkitsua. 629 71 12 26.

**Elgeta.** Etxea salgai. Hiru logela, igogailua. 946 81 71 97.

**Eskoriatza.** Erdialdean 52 m<sup>2</sup> apartamentua salgai. Terrazarekin. Jangela-sukaldia, gela bat, logela eta komuna. Bizitzateko gertu. 626 96 03 97.

**Gasteiz.** Bi logela, egongela, sukaldia eta komun bat. Igogailua eta ganbara. Hiru urte dirala guztiz berriua. Solairu altua eta argitsua. Berogailu indibiduala. Jantzitza. Hiri erdian (Poliklinika eta Gasteiz hiribidea bitartean). Prezioa 252.500 euro (42.000.000 pta). 629 75 54 22.

**Gasteiz.** Erdialdean bi solairuko etxebizitza salgai. Lehenengo solairuan: 3 gela, bainugela, sukaldia-jangela eta sarrera.

Beheko solairuan: txoko oso handia sutondoarekin, bainugela, gela eta soto txiki bat. Berriua eta berogailuarekin. Beheko solairuak kaletik sarrera zuzena du. Guztira 125 m<sup>2</sup> dauzka. 670 35 61 37.

**Legutiano.** Etxebizitza salgai. 210.000 euro. Negoziatu egin daiteke. 945 45 52 68.

**Osintxu.** 85 metro koadro. Berogailua, igogailua eta trasteleku ditu. Egoera oso onean eta prezio interesgarria. 656 74 78 80.

**Oñati.** Etxea salgai, leku eta egoera oso onean. Sukaldia, egongela, hiru gela, bi bainu, ganbara. Garajea aukeran. 635 70 83 11.

**Oñati.** Etxebizitza salgai San Lorenzo auzoan. Hiru logela, bi bainugela eta bi balkoi. 80 metro koadro. 19 metro koadroko edo 35 metro koadroko garaje itxia aukeran. 656 74 80 47.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Apartamentua ematen da errentan. 2 logela. Iralabarri plazan dago. 615 76 40 19.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan ematen da. Bi logela. 615 76 40 19.

**Arrasate.** Bi gela errentan ematen ditut unibertsitate ondoan dagoen etxebizitza baten. 685 75 86 37.

**Conil.** Logela bakarreko apartamentua ematen da errentan. 615 75 11 47.

**Elizondo.** Etxebizitza errentan ematen da. 188 m<sup>2</sup>. Zortzi pertsonarentzako lekua. Eguzkitsua. Pili. 630 08 33 85.

**Vera (Almería).** Apartamentua ematen da errentan naturistagune baten. Jantzitza (TB, garbigailua, mikrouhin-labea...). Igerilekua. 657 73 94 25.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Bergarako bikote batek etxebizitza hartu nahi du errentan. Hilean 400 eta 700 euro bitartean ordaintzeko prest. Josu eta Yoana. 669 56 56 87 edo 648 81 67 21.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ingrid. 645 49 91 05.

**Debagoiena.** Bikote batek etxe bat errentan hartuko luke. 677 64 84 82.

## 105. ETXEA OSATU

**Antzuola.** Logela bat daukagu alokatzeko. 616 45 00 20.

**Arrasate.** Langilea naiz eta etxebizitza bat osatuko nuke beste batzuekin edo logela bat alokatuko nuke. 615 75 11 47.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEA OSATU  
106. BESTELAKOAK

## 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

## 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

## 4. LANA

401. ESKAINTZAK  
402. ESKAERAK  
403. BESTELAKOAK

## 5. IRAKASKUNTZA

501. JASO  
502. EMAN  
503. BESTELAKOAK

## 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
604. BESTELAKOAK

## 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

## 8. DENETARIK

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

## 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

## 10. RELAX

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarki bakarrak iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diiren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## OÑATI

**Estetizista edo ile apaintzailea behar da ile apaindegi baten lan egiteko 607 81 52 74**

**Arrasate.** Lagun bat edo bi behar dira etxea osatzeko. Muxibar inguruan. 635 71 79 57.

**Arrasate.** Lanean dabilzan bi mutilek lagun bat behar du etxebizitza osatzeko. 615 76 40 71 edo 627 48 71 70.

## 3/ LOKALAK

## 301. SALDU

**Oñati.** Lokal bat saltzen da San Lorenzo auzoan. 605 77 15 13 edo 605 71 84 94.

## 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Enpresa batek bulego bat alokatuko luke. 250 m<sup>2</sup> gutxienez. Jantzitza egotea beharrezkoa. 943 71 26 84.

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Mutil gazteak sukaldari laguntzaile edo eraikuntzan jardungo luke. 671 41 10 87.

**Debagoiena.** Edadeko pertsonak eta ezinduko zainduko nituzke. 696 38 10 07.

**Ingeles eskolak** emateko pertsona behar da. First titulua beharrezkoa. Felix. Deitu 943 03 73 39 telefonora.

**Neska** prest edadeko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egite-

ko edo ostalaritzan jarduteko. 665 75 52 11.

**Oñati.** Emakume bat behar da arratsaldean ume bat zaintzeko. 658 73 40 21.

## 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakume arduratsua goizez edozein lan egiteko gertu. 943 03 64 36 edo 637 37 41 80.

**Arrasate.** 23 urteko neska eskalduna prest umeak zaintzeko. 699 11 43 23.

**Arrasate.** Emakumea prest pertsona edadetuak zaintzeko. Eskarmentuduna. Deitu 943 08 12 80 telefonora.

**Bergara.** 40 urteko emakume arduratsua batek zaharrak zaindu eta etxeko lanak egiteko litzuzke 14:00etatik 21:00etara, eta gaixoak zainduko litzuzke ospitalean gauz. 649 63 23 24.

**Bergara.** Bide eta ubide ingeniari batek edozein motatako lanak egiteko litzuzke, baita ingelesez eskolak eman ere. 696 38 10 07.

**Bergara.** Edozein lanetarako gertu dago neska bat. Agiriak ditu, eta esperientzia. Arrasaten ere egiteko luke lan. 650 62 12 94.

**Bergara.** Emakume batek goizez lan egiteko luke, garbiketa lanak egiteko edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzen. Deitu 657 71 51 94 telefonora.

**Bergara.** Emakume gazte lanearako gertu, goizez edo gauz,

pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Ditu eginda geriatriako laguntzaile ikastaroa eta gizarteratzearen gaineko bigarren maila. 699 72 49 68.

**Bergara.** Etxeko lanak egiteko gertu emakume bat, baita etxean bertan bizitzeko ere. Deitu 619 92 40 86 telefonora.

**Bergara.** Unibertsitate ikasketak dituen laguna gertu mantenu, konponketa, belar mozte eta bestelakoetan lan egiteko. 665 75 52 11.

**Bergara.** Unibertsitate ikasketak ditut, eta esperientzia dut agronomo eta basoko lanetan. Baserrian edo sailean egiteko nuke lan gustura. 699 34 71 99.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu mutil bat. 677 69 14 15.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu neska bat. Deitu 659 35 09 30 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua eta esperientziaduna gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. 610 95 81 16.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Etxe barruan lan egiteko gertu. Esperientziaduna. 943 53 21 63 edo 600 69 92 03.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Arratsaldean lan egiteko luke. Luisa. 628 82 96 56.

**Debagoiena.** Esperientzia handia eta titulua duen neska ger-

tu gitarra eskolak emateko. Maila guztiak. 685 73 12 47.

**Debagoiena.** Gazte batek zerbitzari lan egiteko luke. Eskarmentuarekin. 669 62 94 05.

**Debagoiena.** Gazte marmolariak era guztietako lanak egiten ditu marmolean eta granitoan. Eskarmentu handiarekin. 943 53 21 63.

**Debagoiena.** Mutil bat gertu lanerako: zebitzari, edatekuak zaintzeko, lorezaintzan edo garbitasunean. 610 95 79 79.

**Debagoiena.** Mutil gazte gertu edozein lan egiteko, batez ere lantegietan edo tabernetan. 666 06 99 68.

**Nekazaritza teknikaria** naiz. Zuhaitz inazketa, lorategi, baserri edota edozein lekutako garbiketa eta mantentze lanak. 699 34 71 99.

**Oñati.** Emakumea gertu haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 605 70 48 50.

## 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Hizkuntza irakasle** partikularra behar da Ingeleseko eta alemanierazko klaseak emateko. Idatziko maila oso ona ingelesez eta mintza praktikak egiteko gaitasuna, alemanieraz. Astelehenera arratsaldetara. Deitu 605 74 26 65 telefonora.

**Oñati.** Pertsona bat behar da batxilergoko ikasleei matematika, fisika eta kimikako klaseak emateko. Egunean bi ordu. Astelehenera egunera. Ondo ordaintzen da. 943 78 13 44.

## 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen dira. 943 79 03 83.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Autokarabana** salgai. Deitu 658 72 11 49 telefonora.

**Citroen C5** HDI 2.0 salgai. 110 ZP. 83.000 kilometro. 2004ko ekainekoa. Egoera onean. Estru ugari. 12.500 euro. Deitu 665 02 66 23 telefonora.

**Citroen ZX** 1.9 TD autoa salgai. Bost ate, aire girotua. 12 urte. 1.600 euro. Deitu 19:30etik 22:00etara. 943 78 36 32.

**Honda 250** quada salgai. Oso egoera onean. 652 70 57 66.

**KTM Junior** motorra salgai. 50 cc. Oso egoera onean. 19:30etik 22:00etara bitartean deitu. Mikel. 943 03 46 11.

**Multivan Allstar** furgoneta. 1997koa, egoera oso onean. Prezio interesgarria. Deitu 679 24 80 35 telefonora.

**Renault 19** autoa. 110.000 kilometro ditu eta 1.200 euro eskatzen ditut. 636 57 65 66.

**Renault Traffic** furgoneta salgai. Generation modelo. 685 73 06 94 edo 652 73 46 11.

**Scooter Suzuki** motorra. 49 cc. 12.000 km, 420 euro. Deitu 626 28 68 13 telefonora.

**Volkswagen Passat** 1.8 autoa salgai. Gasolina. Zazpi urte. 100.000 kilometro. Neguko gurpil berriak ditu. 685 75 61 34.

**VW Passat** 2.5 V6 TDI Highline 2000 salgai. 12.500-tan Xenon argiak, klimatizatzailea, euri sentzorea e.a.... Bete egon da garajea, egoera bikainean dago. 656 75 45 91.

## 603. ALOKATU

**Autokarabana** alokairuan. Sei lagunendako egokituta. Deitu 658 72 11 49 telefonora.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Auto-parrilla** salgai. Deitu 678 40 57 04 telefonora.

**Bergara.** Hektarea bateko pinudua salduko nuke. 678 72 75 72.

**Cannon** EOS 300 argazki kamera. 28.90 objektiboa. Poltsa opari. 639 90 36 18.

**Epiphone SG** gitarra elektriko eta Peavy amplifikadorea. 210 euro eskatzen ditut bienatik. Berri-berriak. 636 57 65 66.

**PSP** bat saltzen da. Deitu 678 40 57 04 telefonora.

**Pultsometroa** salgai. S410 modelo, CD-ROMa barne. Deitu 685 76 44 77 telefonora.

## 806. GALDU

**Arrasate.** Erlojua galdu nuen abenduaren 14an, Akelarre gozotegi inguruan. Balio handia dauka neurtzatz. Deitu 943 79 86 21 telefonora.

## 808. BESTELAKOAK

**Bergara.** Heavy-power taldea osatzeko behar dira: gitarrak, jotzailea, baxu-jotzailea eta abeslaria. Deitu 665 75 12 32 telefonora.

**Lursaila** hartuko nuke errentan Debagoienan, zaldi bi edukitzeko. Txabolatxo edukit behar du, korta birekin. Eta ura. Deitu 670 43 16 52 telefonora.

Urtarrilaren 22a:  
115 zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

## Zorionak, irabazleoi!

Gaur, urtarrilak 22, egin den zozketaren saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! Astelehenera Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeuz izan zaitzke hurrengo zozketaren irabazleatiko bat!**

## Saridunak



Lau kamiseta (bakoitzari bat)

- Estitxu Unzurrunzaga Berstain (Arrasate)
- Ramon Etxezarreta Crespo (Eskoriatza)
- Miren Galindez Etxeberria (Aramaio)
- Marilu Madinabeitia Eskibel (Aretxabaleta)

## Hurrengo zozketako sariak



**PAMIELA**  
argitaletxeko bi liburu sorta.

## Baldintzak

- Astelehenera Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51  
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:

37 euro  
2007 bukaera arte.

ASTELEHENEN  
**Goienkaria**  
astelehenera, aste bukaera osoa



astea GOITBn

Astelehena, 22

Martitzena, 23

Eguaztena, 24

Eguena, 25

Egubakoitza, 26



> 'Harmailatik': Ointzeko gazteen partiduko irudiak 21:15

Ointxe saskibaloitalko taldeko gazteek partidua erabakigarria jokatu zuten atzo, Azpeitiko Lasaren aurka. Partiduaren laburpena gaur.


- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Teknopolis.
- 14:15 Hitz bitan.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Ilunpean: Patxi Usobiaga.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 MKT. Gatza ta berakata.
- 16:15 Jazzminia.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ur eta lur.
- 18:15 Eltze beroa: Txokolate bizkotxo.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:15 Danbako: Jim TNT.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Erreportaia.
- 22:15 Hasiberriak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Didjeridu: Xabier Silveira.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ikusmira.
- 00:15 Emisio amaiera.



> Gizarte eta politika gaiak 'Berbaire' saioan 21:15

Gorka Etxabe aurkezlearekin batera Arrate Landa, Urko Lopez, Mikel Lezamiz (irudian) eta Pello Urizar izango dira gaur gauean.

- 13:15 Emisio hasiera
- 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Harmailatik.
- 14:15 Erreportaia.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Didjeridu: Xabier Silveira.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Hasiberriak.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean: Patxi Usobiaga.
- 18:15 MKT/Gatza ta berakata.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Danbako: Belceblues.
- 22:15 16 mm.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Hitz bitan
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Harmailatik.
- 00:15 Emisio amaiera.



> Inazio Lakuntza elkarrizketatuko du Gorritibereak 21:15

Debarri saioan Inazio Lakuntza Arrasateko alkatea izango da gaurko gonbidatua. Ikusentzuleek ere badaukate galderak egiteko aukera.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbako: Belceblues.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 16mm.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Hasiberriak.
- 16:15 Eltze beroa: Ajoarriero.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Harmailatik.
- 18:15 Hitz bitan.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:15 Danbako: Belceblues.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Debarri: Arrasate.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Debarri: Arrasate.
- 22:15 Hasiberriak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ur eta Lur.
- 00:15 Emisio amaiera.



> Malenkonia taldearen kontzertua 21:47

Danbako musika lehiaketako finalistetako bat izan genuen Malenkonia talde oñatiarra. Haien kontzertua eskainiko dizuegu gaur.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Debarri: Arrasate.
- 14:15 Debarri: Arrasate.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Teknopolis.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazmina.
- 16:15 Ikusmira.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Eltze beroa: Ajoarriero.
- 18:15 16mm.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:15 MKT/Gatza ta berakata.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Berbaire.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Danbako: Malenkonia.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Erreportaia.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Ilunpean: Patxi Usobiaga.
- 00:15 Emisio amaiera.



> 'Ilunpean' saioa, Oihana Elortzak aurkeztuta 21:47

Ilunpean saioetik aurpegi asko eta asko igaro dira dagoeneko. Gaur ere pertsonaia ezagunen bat izango da Oihana Elortzarekin solasean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbako: Malenkonia.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:15 Eltze beroa: Ajoarriero.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Hitz bitan.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Debarri: Arrasate.
- 18:15 Debarri: Arrasate
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:15 Danbako: Malenkonia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak.
- 21:47 Iragana Gogoratu: Ahaztutako bideak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire II.
- 23:45 Gaurkoak.
- 23:47 Jazminia.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

> Milaka Biraka: Maite Aristegiri elkarrizketa 11:00

Milaka Biraka ekimenaren berri eman go digu Maite Aristegirik gaurko irratsaioan, 11:00etan. Era berean, egoera politikoa izango dute hizpide. Aurretik kirolen tarte izango da, Jokin Etxeberriarekin.

Astelehenetik egubakoitzera

- 10:00-12:00 Igo autobusera!
- Albistegiak
- Prentsaren erreposoa
- Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
- Elkarrizketak
- Zozketak
- Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
- 12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegi.
- 14:00 Igo autobusera! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

Zapatua

- 10:00 Asteko gainbegiratu.
- Astean barrera egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena.
- 16:00 Danbako.
- 23:00 Danbako.

Domeka

- 10:00 Asteko gainbegiratu.
- 16:00 Danbako.
- 23:00 Danbako.

gertutik



Maria Agirre  
Kazetaria

"Saio onenak ordu txarretan botatzen dituzte telebistan"

EDU MENDIBIL > BERGARA  
Prentsa (*Goienkaria*-n), irratia (Euskadi Irratian) eta telebista jorratu ditu Maria Agirre aretxabaletarrak. Gaur egun Elhuyar Fundazioan dabil, *Teknopolis* saioan (ETB-1). Aurtengoa bederatzigarren denboraldia du zientzia eta teknologiarren gaineko saioak. Agirrek laster baja hartu beharko du halaber: amaizango da apirilaren amaieran.

Zientzia eta teknologiako zenbait gai modu ulergarrian aurkeztea ez da lan makala.

Ez da erraza, ez. Esaten ari zarena ez baduzu ulertzen, igarri egiten da. Horrelako gaietan hanka sartzeko arriskua handiagoa da. Horregatik, kazetariok idazten ditugun erreportajeak zuzendariak edo, komeni denean, Elhuyarko zientzialariren batek irakurtzen ditu. Apurka-apurka, ikasten joaten zara, baina egun baten biologiaz eta hurrengo astronomiaz jarduteak lana zailtzen du.

Zein da buruhauste gehien eman dizun erreportajeak?

Askogatik, zailenak fisikarekin lotutako gaiak dira. Oraindik ez dut Einstein ulertzen; ezinezkoa zait.

Eta zein gai dituzu gustukoena?

Medikuntzarekin lotutakoak; ospitaletara joatea eta medikuekin hitz egitea gustuko dut.

Beste telebista kateetan egiten diren antzeko saioen artean, zein nabarmenduko zenuke?

La2 katean ostegunetan ematen duten *Redes* saioak oso itxura ona du baina oso berandu da... Telebistarekin hori gertatzen da: saio onenak ordu txarretan direla.

Eta aukeran, zein lan nahiko zenuke etorkizunerako?

Atzerriko berriemaileen lana oso interesgarria iruditzen zait. Bestela, Milan, New York eta Londreseko moda desfileak gustura komentatuko nituzke... Ez da gutxi eskatzea!

Aisialdirako, herria ala hiria?

Batzuetan Aretxabaletan, beste batzuetan Donostia aldean... Paseatzea, italiar baten bazkaldu, erosketatxo batzuk egin... ez da plan txarra. Aretxabaletan ere gustura ibiltzen naiz lagunekin eta ahizpekin.

asteko hitzorduak

Ospakizuna



BERGARA

> Ubera auzoan San Paulo jaiak ospatuko dituzte eguenetik aurrera

Eguenean meza nagusia izango da 11:00etan, eta gero, salda eta txorizoa banatuko dute. Barikuan auzo afaria egingo dute eta zapatuan patata tortilla eta mus lehiaketa jokatu dira. Domekan, dantza erakustaldia egongo da.

Erakusketa




OÑATI

> Epi Perez antzuolarraren margo erakusketa kultura etxean

Epi Perez margolari antzuolarrak erakusketa dauka Oñatiko kultura etxean. 45 bat margolan ipini ditu ikusgai. Gehienak olioak dira, baina akuarela batzuk ere badaude. Otsailaren 4ra arte dago zabalik.

Ipuin kontakizuna



BERGARA

> Jose Mari Carrere ipuin kontalaria-ren saioa, Pol-Pol tabernan

Jose Mari Carrere ipuin kontalaria *Kondoi bakoitzak bere istorioa dauka* izeneko emanaldia egingo du egunean, hilak 25, Pol-Pol tabernan. 22:30ean hasiko da Carrereren emanaldia.



## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

## To eat and take away, motorrean?

**K**irolean ez ezik, parrandan ere trebeak direla erakutsi zuten zapatuan **Aloña Mendiko eskubaloijokalar** ohiek. Urteroko bazkaria egin zuten Etxaluze elkartean; aurten, gainera, lehenengo maila nazionalera igo zireneko bosgarren urteurrena ospatu zuten.

Bestalde, eskubaloiak festa handia biziko du otsailaren 3an Oñatin. Aloña Mendik, **Txanda** elkartearekin batera, Asobal mailako bi talde ekarriko ditu Zubikoara: **Arrate** eta **Logroño**, hain zuten

## "Oñatiko Zubikoa kiroldegiak Asobal mailako bi talde hartuko ditu otsailaren 3an"

ere. Gero, Oñarri elkartera gonbidatuko dituzte bazkaltzera jokalaria. Sukaldariek taxuz egin beharko dute lan morrosko guzti horiei jaten emateko!

Jana aipatu dugula, zera esan didate: Arrasaten ireki behar duten **Kebap** jatetxean langile euskaldunen bila dabilzala. Zoriontzekoa, benetan. Bestalde, Oñatiko **Goiena** jatetxean txinatar janaria ematen hasi dira asteburuan. Han, ordea, gaztelaniaz eta ingelesez jarri dituzte kartelak. Benetan internazionala, gure ibarra!

Ez dakit jana etxerik etxe nola banatuko duten, baina, beharra izanez gero, **udaltzainendako** erosi behar dituzten motoak erabili ditzateke. Ea motoekin udaltzainak plazaatik gehiago mugitzen diren.

## hildakoak

• **Antonio Arana Ormaetxea**. Bergaran, urtarrilaren 21ean. 84 urte.



## ESKELAK

GOIENKARIAN eskola jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen: 943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro. Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, 100 €.

Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.

## asteburuko albuma

## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**


Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: [astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)



**Bergarako 30. San Anton Deuna krosa.** San Anton auzoko jaietako krosean, 40 lagunek parte hartu zuten atzo, domeka. Gazteetan, Jokin Etxabek irabazi zuen; helduetan, Ander Agirrek; emakumeetan, M. Karmen Isastik; beteranoetan, Roberto Zurrok, eta beteranoagoetan, Juan Jose Priomik. Zorionak txapelduneri eta gainerako parte-hartzaile guztiei ere!



**Begarako Athletic zaleak.** Euren gogoko taldeak animuak behar dituela eta, Bergarako Athletic zaleek Bilbora egin zuten irteera. Goizean abiatu eta Bilboko kaleetan poteoa egin ostean, garagardotegi batean bazkaldu zuten. Ondoren, San Mames futbol zelaira abiatu ziren Athletic-eko bufandak eta kamisetak jantzita. 45 lagun inguru joan arren, zaleen oihuak eta txaloakez ziren nahikoa izan itxuraz, Athletic-ek partidua galdu baitzuen.



**Txooooootx!** Denboraldia zabaldu zuten Aramaioko Iturrieta sagardotegian joan den egubakoitzean, eta lehenengo kupela zabaltzeko, Aramaioko Sagarzaien Elkarte bano aproposagorik ez zegoen. Musikak alaituta jan eta edan zuten inguratu ziren guztiak.



**Kanuto Deuna.** Zazpi garren aldiz ospatu zuten Aretxabaletako eta inguruko marihua-zaleek San Kanuto eguna, zapatuan. Bazkaria, kontzertua eta, nola ez, kalejira ludiko-erreibindikatiboa egin zituzten.



**Debagoieneko danborradak, Azpeitin gonbidatu.** Azpeitiko danborradak 50 urte egin ditu aurten. Hori dela eta, azpeitiarrek Gipuzkoa osoko 37 herriko danborradetako ordezkariak gonbidatu zituzten hilaren 13an, zapatua, egin zuten jaialdi batera. Guztira, 620 gonbidatu izan ziren, eta tartean egon zen debagoien-darrik: hain zuten, Arrasateko, Bergarako, Elgetako, Eskoriatzako eta Oñatiko konpainiatako ordezkariak joan ziren. Ekitaldi nagusia Izarraitz frontoian egin zuten, denek batera jotzen. San Sebastian martxa eta Azpeitiko *Txokolo* pieza jo zituzten. Argazkian, Oñatiko danbor-jole gaztetxo batzuk.



## zorion agurrak



ARRASATE  
**Maribel Pacheco**  
Abenduaren 23an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Zure lankideen partetik.



ARRASATE  
**Nuria Murgia**  
Abenduaren 31n urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Zure lankideen partetik.



ARRASATE  
**Pili Madinabeitia**  
Urtarrilaren 7an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Zure lankideen partetik.



ARRASATE  
**Iraia Lopez**  
Urtarrilaren 13an 2 urte. Zorionak eta urte askotarako. Arizmendi Sanvi Txikiko langunen partetik.



ARRASATE  
**Eider Magunazelaia**  
Urtarrilaren 18an 6 urte. Zorionak printzesa! Muxu handi-handi bat! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Gaizka Arizabaleta**  
Urtarrilaren 16an urtebete. Zorionak! Besarkada handi bat etxeko eta, bereziki, Amalur arreba-aren partetik.



ARRASATE  
**Irati Larrinaga**  
Urtarrilaren 18an 4 urte. Zorionak eta urte askotarako. Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



ARRASATE  
**Iraia Nieto**  
Urtarrilaren 21ean urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Etxeko guztien partetik.



ARRASATE  
**Asier Sala**  
Urtarrilaren 21ean urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, Sala! Goienako lankideen partetik.



ARRASATE  
**Luken Ormaetxea Artola**  
Urtarrilaren 23an urtetxo bat! Zorionak ta patxo haundi bat familia oso-aren partetik!



ARRASATE  
**Leire Carrascosa**  
Urtarrilaren 24an, 4 urte. Zorionak! Etxeko eta Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.



ARRASATE  
**Ainhoa Sagasta**  
Urtarrilaren 25ean, 25 urte. Zorionak eta urte askotarako! Pasten espe-roan, muxu handi bat! Garagartzako lagunak.



ARRASATE  
**Ainhoa Carrascosa**  
Urtarrilaren 25ean, 8 urte beteko ditu. Zorionak eta urte askotarako! Etxeko partetik.




ARRASATE  
**Paula Heriz Uribesalgo**  
Urtarrilaren 26an 17 urte. Zorionak prexioxa! Eguna pasa. Zorionak partetik.



ARRASATE  
**Eider Prieto**  
Urtarrilaren 26an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat! Izar, Aitor, Naia eta Josuren partetik.



ARRASATE  
**Gaizka Vitoria**  
Urtarrilaren 26an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Goienako lankideen partetik.



ARRASATE  
**Danel Ruiz**  
Urtarrilaren 27an, urtebete. Zorionak, potxolo! Muxu handi-handi bat. Etxekoak.



ARRASATE  
**Rafael Soriano**  
Urtarrilaren 29an, 55 urte. Zorionak eta urte askotarako. Etxekoak.



BERGARA  
**Lander Rejano**  
Urtarrilaren 7an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat familia eta lehengusuen partetik.



BERGARA  
**June Arando**  
Urtarrilaren 16an, 3 urte. Zorionak, txori txiki! Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA  
**Nagore Iñurrategi**  
Urtarrilaren 21ean urtebetetzea. Zorionak, Nagore! Bete bezain jator jarraitu. Aquagymeko lagunen partetik.



BERGARA  
**Elene Sasieta**  
Urtarrilaren 22an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Aita, ama eta Arianaren partetik.



BERGARA  
**Irene Valle**  
Urtarrilaren 22an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Oskar eta Maiteren partetik.



BERGARA  
**Maider Bilbao**  
Urtarrilaren 23an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA  
**Markel Garmendia**  
Urtarrilaren 24an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat gurasoen eta Joneren partetik.




BERGARA  
**Mikel Molina**  
Urtarrilaren 25ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat. Lehengusinak eta Leo.



ESKORIATZA  
**Aritz Oianguren**  
Urtarrilaren 16an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, Pitz! Katxi-Buru konpartsa-ren partetik.



ESKORIATZA  
**Serafin Sanchez**  
Urtarrilaren 23an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat. Emaztea eta Alex semea.



OÑATI  
**Markel Madina Olalde**  
Urtarrilaren 20an, 14 urte. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.

## jaiotakoak



**Maren Urribetxebarria Quevedo**  
Bartzelona > 2,580 kilo. Urtarrilaren 9an. Gurasoak: Marina (Bartzelona) eta Urtzi (Arrasate). Argazkian, Maren amaren besoetan.



**Uxue Ugarte Kortabarria**  
Oñati > 3,430 kg. Urtarrilaren 14a. Gurasoak: Arantzazu (Oñati) eta Rafa (Oñati). Argazkian, haurra kuman.



**Ander Regodesebes Barrutiabengoa**  
Arrasate > 3,700 kg. Urtarrilaren 15a. Gurasoak: Amagoia (Arrasate) eta Oskar (Arrasate). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Naira Pineda Cubillo**  
Bergara > 3,400 kg. Urtarrilaren 16a. Gurasoak: Marta (Arrasate) eta Txomin (Bergara). Argazkian, umea kuman.



**Malen eta Josu Antxia Mendo**  
Aretxabaleta > 3,040 kg eta 2,870 kg. Urtarrilaren 17a. Gurasoak: Goyi (Aretxabaleta) eta Aitor (Aretxabaleta). Argazkian, haurrak kuman.



**Jon Vazquez Cantero**  
Aretxabaleta > 3,100 kg. Urtarrilaren 18a. Gurasoak: Maria (Aretxabaleta) eta Juan Carlos (Aretxabaleta). Argazkian, Cristobal eta Maria aitita-amamekin.



**Joane Arkauz Corrales**  
Oñati > 2,500 kg. Urtarrilaren 18a. Gurasoak: Amaia (Oñati) eta Jabier (Oñati). Argazkian, umea kuman.



**Maider Gartzia Serrano**  
Antzuola > 3,180 kg. Urtarrilaren 19a. Gurasoak: Marijo (Antzuola) eta Luis (Legazpi). Argazkian, umea kuman.



**Liher Poza Goenetxea**  
Bergara > 3,980 kg. Urtarrilaren 20a. Gurasoak: Amaia (Bergara) eta Juan Carlos (Bergara). Argazkian, umea kuman.



Patxi Usobiaga > Eskalatzailea

## "Etxeko ukendu batekin zaintzen ditut eskuak"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Eibarkoa da Patxi, hantxe bizi da eta gustura bueltatzen da etxera kanpoan denbora asko egiten duenean; iaz bost hilabetez egon zen kanpoan. Kontzentrazioa garrantzitsua dela dio, entrenamenduetan nahiz txapelketetan.

Lata handia eman dizugu kazetariok azken hilabetean?

Dezente, bai, baina badakit momentu hauek ere pasatu behar ditudala.

Munduko Kopa irabaztea zen zure ametsa. Bete duzu. Zein da hurrengoa?

Berririo irabaztea ez zen txarra izango. Hala ere, aurtun munduko txapelketa jokatu da. Bi urtez segidan bigarren postuan gelditu naiz eta lehenengoa lortzea gurako nuke.

Zenbat garagardo ordaindu dizkiezu lagunei?

Festa bat antolatu nuen Eibar-ko dantzaleku baten lagunekin egoteko eta Kopa ospatzeko.

Zer jaten duzu kanpoan?

Europar gaudenean, karabanan joaten gara, eta geuk prestatzen dugu jatekoa. Europatik kanpo, normalean, mendebaldeko jatorduak ematen dizkigute hoteletan. Ia gauza berak jaten ditugu goizean, eguerdian eta gauean, baina tira.

Egia da txikitik pilotan eta futbolekin aritzen zintela?

Baita atletismoan ere. Ingeleseko eta musikako eskoletara joan ordez, entrenamenduak eta partiduetan izaten nituen nik. Gehiago gustatzen zitzaidan hori.

TEST-A

**Herria:** Eibar. **Adina:** 26 urte. **Zaletasunak:** Etxean lasai egotea eta lagunekin kalera ateratzea. **Zerda egin duzun azken oparia?** Behin lagun bati begiak estali nizkion eta Cirque du Soleil ikuskizuna zegoen tokian kendu nizkion eskuak. **Eta egin dizuten azkena?** Irribarre bat opari ona da askotan. **Sukaldarionazara?** Asko gustatzen zait, baina ez dut larregi esperimentatzen. **Gorputzeko alderik garrantzitsuena?** Gerritik gora dagoena.

Nolakoa da Araotz?

Ederra. Eskaladan 10 bat urte nituela hasi nintzen, gutxi gorabehera. Arrasateko lagunak egin nituen eta Arrasateko rokodromoan ere sarri entrenatu dut. Aitarekin joaten nintzen hasieran Araotzera; gero Arrasateko lagun horiekin. Asko ikasi eta disfrutatu dut eurekin han.

Eskularruekin garbitzen dituzu ontziak?

Bai, baina ez eskuarendako txarra delako. Gainera, oso gutxitan garbitzen ditut ontziak, nahia-go dut sukaldean ibili.

Nola zaintzen dituzu eskuak?

Mila krema probatu ditut eta, azkenean, Eibarren bertan, etxean, egiten duten ukendu bat erabiltzen dut. Ez da magikoa, hori erabilia ere urratzen zaizkit eskuak, baina askoz gutxiago.

Webgunea ere baduzu. Zeuk sartzen dituzu datuak?

Bai, baina zaharkituta dago, webgune dinamikoagoa egin nahi dut orain. Laster egongo da martxan.




UARKAPE Arrasaten ere entrenatzen du batzuetan.

XABIER URTZELAI

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Urtarrileko beharpenetan erosi duzu, edo erosteko asmoa duzu aurtun?



biharamuna

Iñigo Biain


## Lehendakaria ere terrorista da?

**Fidel Castro** ez dago bere momenturik gorenean, **Jose Luis Garcia Sabrido** medikua- ren esanetan. Askorentzat kubatarren askatzailea dena, beste askorentzat diktadore krudel bat besterik ez da, eta beste batzuentzat, berriz, amerikar inperioari aurre egiten irakatsi digun pertsonaia. Bien bitartean, gure Kuba partikular honetan, **Ibarretxe** lehendakari bananeroa espainiarren legea eta ongizatea defendatzen dutenen ahotan dabil, eta nork jakin, agian terrorista izendatuko dute, **Jarrai**, **Haika** eta **Segi** gazte taldeekin gertatu den bezalaxe. Eta agian begiak zabaltzeko ez litzaioke batere gaizki etorriko euskal gizar-

te lotiari bere lehendakaria gizarteko beste elementu batzuk bezala epaitua izatea (berdintasuna)... Izan ere, terrorista bere helburuak gauzatzeko beldurra erabiltzen duena omen da, eta EAJ-PNV alderdiak etengabe erabiltzen du beldurra bere politikak gauzatzeko. Nola uler daiteke bestela indar polizia-erantzun bakar- ztat izatea (edozein egoeraren aurrean), debekua eta zentsura aplikatzea, edo aurre- rapenaren izenean derrigorrezko desjabetzapeña izatea irtenbidea? Agian **Juan Jose** ere itzalpean ikustea terapia eraginkorra litzateke euskaldunontzat, nahiz eta ez naizen inor gartzelaratzearren lagun.



eguraldia



MINIMOA  
**+03**

MAXIMOA  
**+07**

Neguko giroa izango dugu egun osoan: zaparradak eta zaparrada trumoitsuak ere. Elur-kota 500-600 metrotan kokatuko da.

[www.euskalmet.euskadi.net](http://www.euskalmet.euskadi.net)

**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA  
**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA  
**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA  
**JOKOAK:** Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

**5767** zembakira  
SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZa**

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abestia) | **KODEA**

**Himnoak**  
Eibar | **EIBAR**  
Athletic Club | **BILBAO**  
Osasuna | **OSASUNA**  
Real | **REAL**  
Real Union | **UNION**

**Folk**  
Arrasate honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**  
Bai euskarari (Pantxoak) | **BAI**  
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**  
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**  
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**  
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorn) | **EUSKAL**  
Euskaldun bertaren balada (Oskorn) | **EUSKALDUN**  
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**  
Furra Furra (Oskorn) | **FURRA**  
Galziarra noa (Oskorn) | **GALZIARRA**  
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERNIKA**  
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**

**SOINUAK ERREALAK (2 SMS)**  
Abestiaren izena | **KODEA**

1,2,3,4...Real!! | **REAL**  
Alboka | **ALBOKA**  
Athletic Iuep!! | **IEUP**  
Buztan bertsoa | **BERTSO**  
Hartu...Aitaren ta semea... | **AITAREN**  
Hartu...Ansar | **ANSAR**  
Hartu...Argentinarra | **ARGEN**  
Hartu...Mexikarra | **MEXIKO**  
Hartu...Miamol | **MIAMOL**  
Independenzial | **INDEPEN**  
Irrintzia | **IRRINTZI**  
Jotake irabazi arte! | **JOTAKE**  
Milazu! (pilota) | **MILAZU**  
Suprinua | **SUPRINU**  
Tobera | **TOBERA**  
Txalaparta | **TXALA**  
Txanbela | **TXANBERA**  
Txooxt | **TXOTX**

**LOGOAK (SMS 1)**  
**KODEA**

**LAUI** **MUSKARIA** **AIZKORAK**  
**NUKLEAR** **KALABERA1** **EGUZKILORE3**  
**SOINUEKARRI** **SOINUEKARRI** **SOINUEKARRI**  
**SORGIN** **POPATK** **KAPUTX**

**OHARRAK**  
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: [www.smsoinu.com/bateragarri](http://www.smsoinu.com/bateragarri)  
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea duan da eta Kb jaitziera bakarrak ordaindu behar izango dira. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemari alta ematea duan dira.  
\* Euskaltel: deitu 900 94 02 00 telefonora. / \* Vodafone: deitu 123-ra. / \* Movistar: deitu 609-ra.  
**3. ZALANTZAK:** Eztoin zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.  
**4. PERSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzaiegun abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaile eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)